# IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egiteko gida

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

# Aurkibidea


**HITZAURREA**

**1. Sarrera** 7

1.1. Zer da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)? 7

1.2. Hezkuntza Proiektua edukitzeak duen garrantzia. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekariak. 7

1.3. Zer dio indarrean dagoen araudiak? 9

1.4. IHPk ikastetxeko beste dokumentu batzuekin duen erlazioa 10

**2. IHPren ezaugarriak** 13

**3. IHPren atalak eta edukiak** 17

3.1. Non gaude? Ikastetxearen testuinguruaren azterketa. 17

3.2. Nor gara? Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak. 20

3.3. Zer lortu nahi dugu? Helburuak eta lehentasunak. 24

3.4. Nola lortu nahi dugu? Curriculumaren eta antolamenduaren esparrua. 26

3.5. IHPren iraunaldia eta berrikuspena 35

**4. Parte-hartzean oinarritutako prozesua** 37

**5. Gaian sakontzeko** 43

**ERANSKINAK**

IHP partaidetza bidez lantzeko bitartekoen dosierra 45

IHP idazteko txantiloiak 89

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, ikasle guztien arrakasta ziurtatzeko ahaleginean, ikastetxearen planteamendu globala bultzatu nahi du. Horretarako, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) edukitzea beharrezkoa dela adierazten eta bultzatzen ari da bere proposamen eta agerraldi guztietan. Proiektu horrek, alde batetik, hezkuntzaren antolamendu eta plangintzaren ardatz nagusia izan behar du, eta, beste aldetik, koherentziaz bideratu behar ditu egiten ari diren proposamen, plan, esperientzia eta programa guztiak.

Euskal ikastetxeak dinamikoak dira, gaur eguneko gizartearen erronkei erantzuteko grina dute, eta, azken urteetan hainbat eta hainbat ekimen eta proiektu abian jartzera eraman ditu grina horrek. Une honetan, sailaren iritziz egoki eta beharrezkoa da ikastetxeak haien hezkuntza proiektuak eguneratzen hastea –edo, proiekturik ez badute, prestatzen hastea–, eta proiektu horietan biltzea hezkuntza-jarduera osoaren oinarri diren printzipioak.

IHParen ezaugarri esanguratsuenetako bat azpimarratu nahi dugu. Hain zuzen ere, proiektuaren prestaketak edo eguneraketak hezkuntza-komunitateko kide guztien bilgunea izan behar duela; familiak, ikasleak eta ikastetxean lan egiten duten profesionalak bildu behar dituela, alegia. Bakoitzak bere ikuskera, erantzukizuna eta jarduera-eremua izan behar du, baina denek hartu behar dute emaitzak hobetzeko eta eskola-arrakasta lortzeko konpromisoa.

Helburu horrekin aurkezten dugu gida hau, IHPa egiteko edo eguneratzeko prozesuan laguntza eta orientabidea emateko. IHParen ezaugarriei begira antolatuta dago, eta prozesuaren beraren garrantzia nabarmentzen du (parte-hartzean eta adostasunak bilatzean). Ikastetxeko eremu guztietan erreferentziazko dokumentua izateko pentsatuta dago, bai erabaki handiak hartzeko eta bai eguneroko jardunerako ere.

Gida hau bi zatitan banatuta dago. Lehenengo zatian marko teorikoa aurkezten da, eta bertan definitzen eta azaltzen dira IHParen elementu bakoitza eta atal bakoitzean kontuan hartu beharreko alderdiak. Zereginean orientatzeko eta laguntzeko benetako adibideak ere erakusten dira. Bigarren zatian, berriz, tresnak eta ereduak daude, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrietara egokituz IHPa prestatzen laguntzeko.

Gidak ikastetxe-mota guztientzat balio du, eta, jarduerak zehaztu aurretik, ikastetxe bakoitzak egokituko du bere ezaugarrietara, bere aurrekariak, gaur eguneko dinamika, baldintzak eta ahalmena kontuan hartuz.

Gida honi zabalkundea eman aurretik, ikastetxearen heziketa-proiektuari buruz sailak duen planteamendua landu eta partekatu dute laguntza-zerbitzuek (Berritzeguneek) eta Hezkuntzako Ikuskaritzak, prestaketa edo eguneratze-prozesu honetan ikastetxeei laguntza eta orientabidea emateko.

Gure bultzada eta laguntza eskeintzen dizkizuegu, hasi beharreko ibilbide hau aukera bihurtu dadin hezkuntza publiko inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoaren alde daukazuen konpromisoa berritzeko.

**Arantza Aurrekoetxea Bilbao**
Hezkuntza Sailburuordea

# 1. Sarrera

*Erakundeak hobetu egiten dira, egungo egoeraren analisian oinarrituta etorkizuneko egoera posible bat aurreikusteko gai direnean. Plangintzak, modu kolektiboan gauzatuta, komunitate baten ametsak zehazten eta betetzen laguntzen du.*

**Eusko Jaurlaritza [2011]**. *Plangintza, eskolaren esparruan.*

## 1.1. Zer da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua?

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria - da. Eskola-komunitateak, bere autonomiaren bidez, ikastetxe horretarako osatutako hezkuntza-aukera adierazten du bertan. Ondorioz, IHP proposamen integrala eta globala da; ikastetxearen beraren ezaugarrien analisia aintzat hartuta, bere ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du.

IHPk hezkuntza-asmo argia du, komunitateak hezigaiarentzat finkatutako aukera eta horretara xedatutako bitartekoak adierazten dituelako. Halaber, Ikasle guztiei kalitateko hezkuntza ekitatiboa emateko konpromisoa islatzen du, gizarte-bizitzarako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten eta, horien bidez, eskola-arrakasta lor dezaten.

Aldi berean, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua familien, ikasleen eta ikastetxean aritzen diren profesionalen arteko elkargunea da. Gune horretan, eragile bakoitzak hezkuntzari buruz duen ikuspegia eta ikastetxearen ingurunearen interpretazioa plazaratuko ditu, eta guztien artean, hezkuntza-jarduerak oinarri izango dituen konpromisoak adostuko dituzte.

## 1.2. Hezkuntza Proiektua edukitzeak duen garrantzia. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekariak

Hezkuntza Proiektuaren ideia taxutzeko lehen hurbilketa, 1970eko hamarkadatik aurrera eman zen. Estreinako urrats hauek, honako alderdi hauek izan zuten, besteak beste, inspirazio iturri: parte hartzearen paradigma, autonomia pedagogikoaren eta antolakuntza-autonomiaren printzipioak, hezkuntzaren izaera zientifikoa eta ikastetxeen singulartasuna. Aurreneko hurbilketa horiek hezkuntza-ikerkuntzaren esparrutik abiatuta egin ziren.

Hezkuntza-administrazioek haien esparrura eraman dituzte ekarpen horiek, baita curriculumaren antolaketaren gaineko ikuspegi berriak eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak ere, eta, hala, ikasleek prozesuotan parte hartu beharra eta irakasleek curriculumak zehaztean inplikatzea bultzatu dute. Alderdi horiek, gaur egun, legeria-esparruen ezaugarri bihurtu dira.

Lege eta arauetan zehaztuta dago ikastetxeek zenbateko autonomia izango duten pedagogiaren eta antolakuntzaren esparruetan: LODEn (1985), LOGSEn (1990), Euskal Eskola Publikoaren Legean (1993) eta bere garapenetan, LOEn (2006) eta gure Oinarrizko Hezkuntzako (2007), Haur Hezkuntzako (2009) eta Batxilergoko (2009) curriculum-dekretuetan. Arau horiek, bestalde, hainbat erantzukizun esleitzen dizkiete hezkuntza-komunitateei eta irakasle-taldeei, aipatutako arloetan.

Mugarri garrantzitsuak izan dira, berebat, Unescoren Delors txostena (1996), zeinak hezkuntzaren lau zutarriak zehazten zituen (ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarbizitzen ikastea eta *izaten* ikastea); Lisboako 2000ko goi-bilera; *Europa 2010 Plana: integrazio osorantz, ezagutzaren gizartea*; Europako Parlamentuak oinarrizko zortzi gaitasunak onartzea; eta *ET 2020*[1] delakoa. Mugarri horiek guztiek laneko helburuak eta metodoak birpentsatzeko bidea ematen dute.

Gure curriculum-dekretuak gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren esparruan kokatzen dira. Lehen aipatutako printzipioei eta ezaugarriei (parte hartzea, autonomia, izaera berezia, eta abar), kalitateko hezkuntzaren eta hezkuntza inklusiboaren ikuspegiak gehitu zaizkie. Ikuspegi horiek ekitatearen, elkartasunaren eta berdintasunaren balioetan oinarrituta daude, eta ikasleek ikasitakoa integratzea eta eskuratutako ezagutzak erabiltzea lortzeko helburua dute, ikasitakoak eta eskuratutakoak hainbat egoeratan eta testuingurutan aplikatzeko. Gainera, aniztasuna eta hizkuntzen tratamendua ere arlo garrantzitsu bihurtu dira, bizikidetzari eta tutoretza-eginkizunari loturiko alderdi guztiak sendotzeaz gain.

Gizartearen erronka eta eskakizun berrietara egokitutako erantzunak eskaintzearren, araudia garatzen joan da, eta betekizun berriak ekarri dizkie ikastetxeei. Horretan guztian bere aletxoa jarri du hezkuntza-ikerkuntzak, eskola-eraginkortasunaren garapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat hezkuntza-komunitateak proiektu partekatua izatea denez, hezkuntzako helburuak eta xedeak adierazi behar dituena eta modu esplizituan azaldu behar dena. Era berean, egiaztatu denez, hezkuntza-jarduerari koherentzia ematen diona –eta, ondorioz, balio erantsia ere bai– ikastetxea da: ikastetxea bere osotasunean hartuta, eta irakasle bakoitzaren jardueran eta erantzukizunean oinarrituta. Ikastetxe osoak du eragina eskaintzen duen hezkuntza-prozesuaren kalitatean.

Egoera horretan, erakunde-agiriak (hezkuntza-proiektuak[2], curriculum-proiektuak –Trebakuntza Plan Intentsiboa deituaren bidez–, urteko planak eta memoriak, antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak, etab.) osatu zituzten ikastetxeek, eta beren agiriak berrikusi eta egunean

[1] Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala. (2009). *Europako Lankidetzarako Esparru Estrategikoa, hezkuntzaren eta trebakuntzaren esparruan.*

[2] Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak *Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua prestatzeko gida* argitaratu zuen 1997an, eta hori eguneratzera dator honako hau.

jarri dituzte, gogoeta, ingurunearen azterketa eta proiektu berriak egiteaz gain: hizkuntza-proiektuak, bizikidetza-planak, tutoretza-planak, hobekuntza-planak, plan estrategikoak, zuzendaritza-proiektuak, hezkidetzarako proiektuak, genero-indarkeriaren prebentzioa, etab.

Ikastetxe bakoitzak prozesu horri heltzeko aukeratutako modua bere kulturak baldintzatu du, eta, aldi berean, egokitu. Ikastetxeak egin duen ibilbidea da, hain zuzen ere, haren ondarea; ibilbide horretan ditu bere indarguneak eta ahuleziak. Edozein ikastetxetan etengabe hartzen diren erabakien arrazoiak edo jarraibideak jasotzen dituen agiria izan behar luke IHPk, baina ez da beti hala izaten. Maiz, agiri instituzionalen arteko hierarkia teorikoa ez da ikastetxeetako egunerokoarekin bat etortzen. Haien barne-prozesuek erantzun geroraezin berriak behar dituzte, lehen beste agiri orokorrago batzuk prestatzean kontuan hartu ere egin ez ziren alderdietan, baina orain funtsezkoak direnetan.

Hala, dedukzioa edo indukzioa erabilita, orokorretik abiatuta partikularrera igarota, edo partikularretik abiatuta orokorrera igarota, hezkuntza-komunitate bakoitzak, bere dokumentu instituzionalei loturiko errealitatearen arabera, prozesu berriari aurre egiteko erabaki egokienak hartuko ditu: IHP egitea, berregitea edo eguneratzea. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren jardueren artean beharrezko koherentzia egituratzeko, eta ikasleek ahalik eta arrakasta-maila handiena lortzeko.

Gidaliburu honen helburua hezkuntza-komunitateei prozesu horretan laguntzea da.

### 1.3. Zer dio indarrean dagoen araudiak?

Bat baino gehiago dira Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua erregulatzen duten arauak:

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (46. artikuluan).
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (121. artikuluan).
- Hezkuntza-etapa bakoitzeko curriculumak ezartzen dituzten dekretuak.

Indarreko legediak ezartzen du ikastetxeek zer-nolako jarduera-esparrua izango duten Hezkuntza Proiektuari dagokionez, eta bi alde xedatzen ditu: batetik, printzipioetan, balioetan eta helburuetan oinarritutako eredua errespetatu behar dutela dio, eta, bestetik, Hezkuntza Proiektuaren edukia eta atalak zehazten ditu.

Ildo horri helduta, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak honako atal hauek izatea proposatuko dugu:

- Ikastetxearen testuinguruari buruzko analisia eta ondorioak.
- Printzipioak, balioak eta ezaugarriak.
- Oinarrizko helburuak eta lehentasunak.
- Curriculum-esparrua eta antolaketa-esparrua.
- IHPren iraunaldia eta berrikuspena.

### 1.4. IHPk ikastetxeko beste dokumentu batzuekin duen erlazioa

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua ikastetxearen ezaugarriak zehazten dituen oinarrizko eta funtsezko dokumentu instituzionala da. Hezkuntza-komunitatea bat dator proiektu horrekin, eta han zehaztutako irudia zabaltzen du kanporantz. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak egitasmoa garatuko duten dokumentuen norabidea finkatzeko oinarrizko irizpideak jasotzen ditu. Hasiera batean, honako hauek dira dokumentu horiek:

- Curriculumaren esparruan, Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP).
- Antolakuntzaren esparruan, Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA).

Hiru dokumentu horiek (**IHP, ICP eta AJA**)ikastetxeko jarduera osoari zentzua ematen dioten funtsezko erreferentziak jasotzen dituzte, eta koherentzia nahiz egonkortasuna ematen diote heziketa-jarduerari. Horrenbestez, epe luzerako dokumentu gisa eratuko dira.

**Ikastetxean badira dokumentu gehiago** ere, arlo operatiboan eta funtzionalean, hango bizitzaren alderdi zehatzagoak garatzen dituztenak:

- Batzuek plangintza estrategikoa dute xede; zuzendaritza-proiektuak edo plan estrategikoak, adibidez. Horrelakoak lau, bost edo sei urtean behin egiten dira.
- Beste batzuk arlo zehatzago bat antolatzeaz arduratzen dira: urtean behin egiten dira, eta Ikastetxeko urteko plana edo ebaluazio-memoria izaten dute xede.
- Curriculumaren alderdiak garatzen dituztenak ere hor daude; programazio didaktikoa, adibidez.
- Azkenik, berariazko gaiei lotutako dokumentuak daude, tutoretza-ekintzako plana, bizikidetza-plana edo diagnostiko-ebaluazioen ondoriozko hobekuntzarako esku-hartzeko plana, kasurako.

Azken horiek ere dokumentu orokorrekiko koherenteak izan beharko dira (haien parte ere izan daitezke), eta iraupen aldakorra izango dute, kasuan kasuko jarduerak gauzatzearen araberakoa izan daitekeena.




**ikastetxearen hezkuntza proiektua**

*nahitaezko erreferentzia, honako hau lantzeko:*




**zuzendaritza proiektua**

### non gaude?

- zentroaren **testuinguruaren azterketa**, zeinak eragiten baitu hartuko ditugun erabakietan…

### nor gara?

- **zentroaren identitate-printzipioak**. Definitzen gaituzten ezaugarriak eta baloreak. Zer izan nahi dugu?

### zer lortu nahi dugu?

- zentroak dituen **helburu eta jomugak**, bertako printzipioak eta ikasleen ezaugarriak aintzakotzat hartuta. Helburuak eta lehentasunak…

### nola lortu nahi dugu?

- **curriculum- eta antolamendu- alorreko erabakiak**… Hainbat erabaki hartzea suposatzen du:

- helburuak, edukiak, sekuentziazioa, ebaluazio-irizpideak…
- irizpide pedagogikoak, metodologia…
- aniztasunari eta hpb-ei erantzuna ematea
- hizkuntzen trataera

| erabakitzeko gaiak… | honela garatu eta zehazten dira… | gauzatzeko eta ebaluatzeko, honela bideratzen dira… |
|---|---|---|
| Curriculumaren helburuak, ildo metodologikoa, ebaluazioaren gaineko aukerak, hezkuntza-eskaintza… | → **IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA [ICP]**<br>→ **Beste plan espezifiko batzuk** | *Curriculuma garatzea: programazio didaktikoak* |
| Parte hartzeko eta jarduteko eredua | → **Antolakuntza eta Jarduera Araudia [AJA]** | |
| Hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko aukerak eta irizpideak… | → **Hizkuntza-proiektua**<br>· **Hizkuntza-normalkuntza**<br>· **Hizkuntzen tratamendu integratua**<br>· **Esperientzia eleaniztunak** | → urteko helburua(k) |
| Euskararen erabilera normalizatzeko jarraibideak | | → urteko helburua(k) |
| Aniztasunari erantzuteko aukerak | → **Aniztasunari erantzuteko Plana**<br>· **Kulturartekotasun Plana**<br>· **Hizkuntza indartzeko Plana**<br>· **Hezkuntza indartzeko Plana** | → urteko helburua(k)<br>→ urteko helburua(k) |
| Tutoretza-ekintzak | → **Tutoretza Plana** | → urteko helburua(k) |
| Bizikidetza eredua, hezkidetzaren printzipioak… | → **Bizikidetza Plana**<br>→ **Hezkidetzarako eta genero-indarkeriari aurre egiteko Plana** | → urteko helburua(k)<br>→ urteko helburua(k) |
| Prestakuntzarako jarraibideak | → **Ikastetxearen prestakuntza Plana** | → urteko helburua(k) |









EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

**Hobekuntzarako esku-hartze plana**




**ikastetxearen urteko plana**

**ikastetxearen urteko memoria**

**IHP eta beste dokumentuen arteko harremana (hainbat ikastetxetatik jasotako testuak)***

## IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Hezkuntza pertsonalizatu baten alde gaude, eta lehentasuna ematen diogu hezkuntzaren prestakuntza-izaerari.

Berdinen arteko ikaskuntza eta gizarte-harremanak bultzatzen dituen talde-lana sustatuko dugu.

Irakasleen lanaren funtsa ikasleei laguntza eta orientazioa ematea izango da, eta ikasleen parte hartzea eta autonomia bultzatuko dituzte.

Irakasleak etengabe trebatzea ezinbesteko baldintza da ikastetxe honetan irakaskuntza kalitatezkoa izateko.




... Familiak ikastetxeko profesionalekin elkarlanean jardutea funtsezkoa da.

(...) Gure ikastetxea komunitateari irekita egotea nahi dugu...

## IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA

...Ikaskuntza-prozesuan dauden unearen gaineko informazioa ikasleei etengabe ematea (...). Ebaluazio-irizpideak esplizitatu egingo dira, eta denbora-tarteak eskainiko zaizkie autoebaluazio-jarduerei (...). Gai guztien programazioetan, ikasleen arteko elkarlana ezinbesteko baldintza duten eginkizunak dauzkaten ikaskuntza-jarduerak sartuko dira.

Didaktika-sail guztiek zehaztuko dute ikasturterako duten prestakuntza-plana, Hobekuntzarako Plana aintzat hartuz, eta ezagutzak eta esperientziak partekatuko dituzte.




Sekuentzia didaktikoek ikaskuntza-egoerak aurkeztuko dituzte, eta egoera horiek erreferentziak izango dituzte inguru hurbilean gauzatzen diren jardueretan.

### PROGRAMAZIOAK



Autoebaluaziorako jarduerak planteatuko ditugu, sekuentzia didaktikoan zehar kontrol-zerrendak eginez.

Idatziaren ulermena lantzeko ariketetan, folio birakariaren teknika erabiliko dugu.

Proposatutako arazoak konpontzeko, launakako taldeak egingo ditugu, lan-aste bakoitzean. Ardura bana proposatuko zaie ikasleei, eta txandaka aldatuko da astean zehar; hartara, denek hartuko dituzte beren gain proposatu diren ardura guztiak. Irakasleek unean uneko laguntza emango dute, taldeek behar bezainbeste, aurrera egin ahal izateko eta azken helburua lortzeko: proposatutako arazo guztiak era egokian konpontzea.

### URTEKO PLANA

Irakasleak jardunaldietara, ikastaroetara, mintegietara, etab. joaten direnean, memoria labur bat bidaliko dute ikasketa-burutzara.

Halaber, sailaren bileran laburpen bat egingo du, eta adieraziko du prestakuntza nola islatzen den programazioan eta ikasgelako jardueren diseinuan.




### PROGRAMAZIOAK

Garraioen gaineko hirugarren unitateko proiekturako, lana Euskotrenen egiten duen Maríaren aita gonbidatuko dugu.



*(*) Gida honetako adibide guztiak errealak dira, eta aukeratzeko funtsezko irizpidea izan da ikastetxeen aniztasuna agerraraztea eta ez eredu gisa baliatzea.*

## 2. IHPren ezaugarriak

*Edozein erakunde formaletan, koordinatuta eta koherentziaz aritzeko, eta jardunbide gogobetegarria lortzen saiatzeko, funtsezkoa da helburu argiak izatea –kide guztiek adostutako irizpideetan oinarritutakoak– eta helburu horiek betetzeko inplikazioa eta konpromisoa izatea.*

**Antúnez, S.** [1992]. *El Proyecto Educativo de Centro, el instrumento básico de gestión.*

Hona hemen Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren ezaugarrietako batzuk:

- **Globala, integrala eta programatikoa**.

  Hezkuntza Proiektua dokumentu globala da, ikastetxeko hezkuntzaren alderdi funtsezkoak zentzu integratzailean bateratzeko asmoa duelako. Erreferentzia programatikoa denez, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak lotzen ditu.

- **Bakarra eta berezia.**

  Hezkuntza Proiektua zentro bakoitzaren autonomiaren adierazpena da. Hezkuntza Proiektuaren bidez, ikastetxeak bere ezaugarriak eta dagozkion hezkuntza-aukerak zehazten ditu. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua bakar eta berezi bihurtzen duena zera da: ezaugarriak, indarguneak, ahuleziak eta garatzeko asmoa duen helburuak integratzeko modua.

- **Bizia, parte-hartzailea eta integratzailea eta ingurunearekin konprometitua.**

  Funtsean, Hezkuntza Proiektua irakasleekin, ikasleekin, familiekin eta hezkuntza-komunitateko beste eragileekin konprometituta dago, eta estamentu bakoitzaren hezkuntza-aukeren gaineko aurreikuspenak integratzearen eta osatzearen alde egiten du.

  Gida honen 4. atalean, zehatz-mehatz adieraziko da zein den zentroak aukeratutako modua hezkuntza-komunitatea proiektuaren osaeran inplikatzeko, eta zein eratara integratuko dituen hezkuntza-eragileen beharrak, aurreikuspenak eta erronkak proiektu bakar eta koherente batean. Hezkuntza Proiektua prestatzeko prozedura parte-hartzailea eta integratzailea denez, dokumentu bizi bihurtzen da. Komunitateak egunez egunekoan erabakiak hartzeko erreferentzia izateak ere laguntzen dio dinamismo horri.

- **Loteslea, idatzia eta formala.**

  Proiektuak ikastetxeko hezkuntza-eragile guztiak lotzen ditu. Hori dela eta, arreta handia eskaini behar zaie dokumentua prestatzeko prozesuari eta alderdi formalenei (idazketari, adibidez), azken produktuak, idatzia izango denak, behar besteko argitasunez eta zehaztasunez azal ditzan hezkuntza-komunitatearen hezkuntza-aukerak.

- **Kalitateko hezkuntza-erantzunaren sustatzailea.**

  Ikasle eta ikasle-talde guztiei ahalik eta hezkuntza-erantzun onena ematen saiatu behar dira ikastetxe guztiak, ikasleak diren mailakoak direla, lor dezaketen ikaskuntzarik handiena lor dezaten; hau da, eskola-arrakasta izan dezaten. Inklusioa, ekitatea eta bikaintasuna kalitateko hezkuntza-erantzunaren adierazleak dira.

- **Garapen profesionalarekin eta etengabeko hobekuntzarekin konprometitua.**

  Irakasleek eta zuzendaritzak konpromiso berezia dute beren ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin, hezkuntzako esku-hartzearen erantzule nagusiak diren aldetik.

  Ikasleek hezkuntza onena jasotzeko eskubidea dutenez, derrigorrezkoak dira garapen profesionala eta etengabeko prestakuntza. Gainera, egungo joeren arabera, eskola «ikasten duen erakundea da», eta hezkuntza-komunitateak, batez ere irakasleek eta zuzendaritzak, ikasten segitzeko eta etengabe hobetzeko ardura du. Horrenbestez, irakasleen eta zuzendaritzaren garapen profesionalak duen garrantzia azpimarratu behar da.

- **Etorkizunera begirakoa.**

  Izan ere, etorkizuna nolakoa izango den jakiterik ez dagoen arren, aldi horretan bizitzea egokituko zaie egun ikasle direnei. Horrenbestez, hezigaiek garatu beharreko balioak eta, gure asmoen arabera, beharrezkoak izango zaizkien gaitasunak aurreikusi behar ditu IHPk.

### Laburra, xumea eta koherentea.

Nahiz eta hezkuntza konplexua dela jakin, Hezkuntza Proiektua laburra eta xumea izatea proposatzen dugu gidaliburu honetan. Gainera, joera bat, asmo bat, nahitasun bat adierazi behar ditu, hezkuntza-komunitatea ikastetxeak lortu nahi duen eredurantz gidatzeko, hartutako erabakien koherentzia bermatuta.

### Berrikusteko eta eguneratzeko modukoa.

Hezkuntza Proiektua epe luzekoa izatea nahi badugu, eta epe luze horretan dokumentu bizia, integratzailea, loteslea eta hezkuntza-komunitateak erabakiak hartzeko erreferentziazkoa izatea nahi badugu, berrikusteko eta eguneratzeko modukoa izan beharko da, beste edozein proiektu bezala.

Honako gidaliburu honek, orientazio gisa, jardunbide batzuk proposatzen ditu, Hezkuntza Proiektuaren indarraldia, legezkotasuna eta, behar izanez gero, berrikuspena eta eguneraketa ahalbidetzeko.

**Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua** dokumentu globala, integrala eta programatikoa da, eta ezaugarri hauek ditu:

- Ikastetxearen izaera berezia eta bakarra definitzen du.
- Hezkuntza-komunitateko pertsona guztien ekarpenak biltzen ditu, eta horien inplikazioa sustatzen du; eta komunitatea ingurunearekin konpromisoa izango duen proiektu bakar batean biltzen saiatzen da.
- Hezkuntza-komunitate osoa lotzen du.
- Kalitateko hezkuntza-erantzuna bilatzen du ikastetxeko ikasle bakoitzarentzat.
- Konpromisoa hartzen du irakasleen eta zuzendaritzaren garapen profesionalarekin eta etengabeko hobekuntzarekin.
- Etorkizunera proiektatuta dago.
- Proiektu xumea da, laburra eta koherentea.
- Berrikusi eta eguneratu egin daiteke.

# 3. IHPren atalak eta edukiak

Jarraian, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren atalak azalduko ditugu. Hurrenez hurren, honako galdera hauei erantzuten saiatuko gara: NON gaude eta NOR gara[3], ZER lortu nahi dugu eta NOLA lortu nahi dugu. Orri-oineko oharrean esaten den legez, asmoa ez da IHP prestatzeko bide bakar bat zehaztea. Nahi dugun ikastetxeari buruzko gogoetarekin hastea lagungarri gerta dakiguke aurreikuspenak hobetzeko eta komunitate osoari motibazio gehigarria emateko. Ikastetxearen testuingurua aintzat hartzea lagungarri gertatuko zaigu indarguneetan arreta jartzeko, eta nahi diren helburuak lortze aldera beharrezko urrats estrategikoak emateko.

## 3.1. NON GAUDE? IKASTETXEAREN TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Atal honetan, hezkuntza esku-hartzean egiaz eragiten duten eta ikastetxearen ezaugarri nagusiak azaltzea ahalbidetzen duten inguruneko faktoreak nabarmenduko ditugu. Beraz, ez dago faktore-zerrenda luze bat egin beharrik; hobe da nabarmenenak azpimarratzea: *Hezkuntza-komunitatearentzat garrantzitsua dena biltzea da kontua; hau da, hezkuntza-ekintzarako funtsezkoa iruditzen zaiona; bere ustez, ekintza hori baldintzatzen edo sustatzen duena*[4].

Faktore horiek ikastetxearen hezkuntza-ibilbidea ulertzeko bidea eman behar dute. Ikastetxearen indarguneei edo ahuleziei lotuta egon daitezke.

Testuinguruaren gaineko analisiak egiten laguntzeko, ikastetxeek beren dokumentuen abiapuntu izan ziren gogoetak eta ondorioak erabili ditzakete; Curriculum-proiektua edo haren zatiak, Hizkuntza-proiektua, Bizikidetza-plana, Tutoretzako Ekintza-plana, AJA eta Urteko Plana, esaterako.

Analisia datuetan eta frogetan oinarrituta egin beharko da, ez irudipen soiletan oinarrituta.

Honako sekuentzia hau proposatuko dugu analisirako:

[3] 3.1 eta 3.2 atalak gida honetan proposatutako ordenan landu daitezke, baita alderantziz ere. Planteamendu deduktiboa erabiliz gero, ikastetxearen bultzada gidatuko duten ideia nagusietatik abiatuta (3.2 atala, *nor gara*), testuinguruaren analisitik eratorritako datuak kontrastatu ditzakegu (3.1 atala, *non gaude*). Bestela, planteamendu induktiboa erabiliz gero, orain gutxiko hezkuntza-praktikaren analisitik abiatuta (3.1 atala, *non gaude*), hezkuntza-komunitateak jarduneko bere zentroan ezarri nahi dituen funtsezko ideiak kontrastatu ditzakegu (3.2 atala, *nor gara*).

[4] Eusko Jaurlaritza. (1997). *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua prestatzeko gida*, 17. or.

### Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen analisia.

Ikastetxearen hezkuntza-aukeretan eragiten duten testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturaleko faktoreak nabarmenduko dira. Jarduera hori gauzatzeko, ez da denboran oso atzera egin behar; ikastetxe horretako hezkuntza-komunitateari garrantzitsuenak iruditzen zaizkion alderdiak, mugarriak, kultura eta ibilbide bereizgarriak azpimarratu behar dira, ikastetxe horretako hezkuntza-erantzunaren zati handi bat egituratzen dutenak izateagatik.

Ingurune hurbilenari loturiko alderdiek garrantzi handiagoa izan dezaketen arren, ezin dugu alboratu alderdi orokorragoen azterketa, denborarekin gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen baitira.

Hala, bilakaera etengabeko mundu honetan (kultura-aniztasuna, garapen teknologikoa, lokalaren eta globalaren arteko tentsioa, ezagutzen iraultza, etab.), areagotu egin behar da gizartearen eskakizun berriekiko eta hezkuntza-sistemaren eskaerekiko sentsibilitatea. Ingurunea aztertzeak aukera ematen du hezkuntza-komunitateak dituen erronka eta helburu berrien gainean gogoeta egiteko.

### Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntzako emaitzen arabera.

Ikasleek azken ikasturteetan izandako emaitza akademikoen joeren gainean egindako azterketaren ondorioak jasoko dira, baita ikastetxeak eskura dituen beste esparru batzuetako emaitzak ere (bizikidetza, berdintasuna, aniztasunaren arreta, etab.). Halaber, ikaskuntza erdiesten eragina izan dezaketen hesiak aztertuko dira.

Azterketarako datu-iturri nagusiak kanpo- eta barne-ebaluazioak dira, hala nola, inplikatutako familien eta bestelako eragileen balorazioak.

### Ikastetxeko hezkuntza-jarduera orokorraren eta ikastetxeko antolaketaren azterketa.

Curriculum-erabakien eta ikastetxearen ildo metodologikoen azterketatik, baita bere antolaketatik eta funtzionamendutik ere, eratorritako ondorio azpimarragarrienak zehaztuko dira. Hezkuntza-jarduerek aurre egin beharreko gaitasun-ikuspegiko curriculum-erronka berrien ondoriozko galderen gainean gogoeta egin beharko da, eta galderok erantzun. Horrela, informazioaren eta ezagutzaren gizartearen erronkei ziurtasunez egin ahalko zaie aurre.

IHP prestatzeko prozesuan, hezkuntza-komunitateak aukera izango du bere hezkuntza-jarduerak lehenetsitako balioekin bat datozen egiaztatzeko.

# Ikastetxearen testuingurua aztertzeko adibideak... Hausnarketatik testua idaztera

(...) Gaur egungo jendartean garrantzi handia duen aldaketetako bat teknologia berriekin lotutakoa da. Baditugu IKTen erabilera aurreratua errazten duten baldintzak ikastetxeko txoko guztietara kable edo uhin bidez sartzeko aukera ematen duen azpiegitura [...] eta, azkenean, aipatutako teknologiekin gero eta trebatuago dauden eta bai irakaskuntza-kudeaketan eta baita hezkuntza-jardunean ere teknologia horiek erabiltzeko jarrera baikorra duen irakasle-taldea.

«IKTen erabileran jauzi kualitatiboa ematearen alde gaude, hezkuntza-jardunean eta geure metodoetan erabiltzen ditugun materialen artean sartzeko. Gure asmoa da informazio aberats eta egiazkoagoa zabaltzea ikasleen artean, ikasketa-gaien zati handiago eta hobeak hurbilduz, eta are garrantzitsuagoa dena, ikasleen ikaskuntza hobetzea eraginez: izan ere, aukera ematen zaie aktiboagoak izateko, edukiekin elkarreragiteko, gehiago ikertzeko eta ikasten jarraitzeko gogoan eta ikasketetan partaidetza handiagoa izateko».

(CEIP [redacted] HLHI)

Oro har esan dezakegu laneko giroa atsegina dela. Nahiz eta inkestarik ez egin, ikastetxean aldi batean lan egiten dutenen iritzia da lan ona egiten dela, koordinazioa ona dela eta harrera ondo diseinatuta dagoela, baina zenbaitetan halako herstura bat ere nabaritzen dute beharrezko jotzen den hori guztia ezin dutelako lortu.

«Adierazi behar dugun ideia da ondo ari garela lanean baina beti dagoela zer hobetu, segurtasuna transmititu behar dela lantaldean eta gogobetetze-sentsazioa sortu behar dela lortu dugunagatik».

(IES [redacted] BHI)

Gure ikasleen errendimendu akademikoa ezberdina da hezkuntza-mailaren arabera, eta azken ikasturtean maila ezberdinetan izandako sustapen-indizeetan ikus daiteke hori (DBHn % 75, batxilergoan % 62, erdi-mailako zikloetan % 82 eta goi-mailako zikloetan % 92).

«DBHko eta batxilergoko emaitzak hobetzen saiatu behar dugu, metodologia berriak, curriculum-egokitzapenak eta helburu argi eta partekatuak ezarriz tutoretza-ekintzan».

(IES [redacted] BHI)

47 pertsonek osatzen dute ikastetxearen klaustroa eta horietatik %72k behin betiko destinoa du. Alde batetik, finkotasun horri esker aukera dago ikastetxean jarduera-ildoak bermatzeko, baina, bestetik, sortzen diren aldaketen eraginez beharrezkoa da sartzen diren irakasleei harrera egiteko prozedura bat ezartzea, era horretara eraginkortasun handiagoz has daitezen zentroan eta langile berriak ikastetxearen proiektuetara atxiki daitezen. Institutuko eskola-giroa, oro har, ona da, nahiz eta DBHn hobe daitekeen.

«Familia, ikasle eta irakasleek bizikidetza-proiektuaren batzordean duten partaidetza eraginkorrak, tutoretza-ekintza egokiak eta etengabeko elkarrizketak izan behar dute nahi dugun eskola-giroa garatzeko esparruak».

(IES [redacted] BHI)

## 3.2. NOR GARA? PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

Gogoeta eta erabakimen partekatua errazteko, gidaliburu honetan printzipioen, balioen eta ezaugarrien arteko bereizketa zorrotzik ez egitea erabaki dugu. Bereziki, atal honen helburuari eman diogu garrantzia: gure nahiak eta aurreikuspenak zehazteari, eskola-komunitatea garen aldetik, baina zehaztasun terminologikoari garrantzirik kendu gabe.

Hezkuntzako esku-hartzea eta antolaketa-egitura zehazteko hautatutako balioek-helburuek eta nortasun ezaugarriek ikastetxearen singulartasuna osatuko dute.

Kasu guztietan, ezaugarriak eta balioak-helburuak ikuspegi bikoitz baten araberakoak izango dira. Batetik, ikastetxea den hori adieraziko da, egungo egoera, indarguneak eta ahuleziak barne. Bestetik, ikastetxeak xede dituen ezaugarriak eta balioak adieraziko dira.

Bigarren ikuspegi hori funtsezkoa da prozesuko fase honetan. Komunitateko sektore guztiek pentsatu behar dute etorkizunean zer motatako ikastetxea izan nahi duten, zein balioren arabera hezi nahi dituzten ikasleak, zein den hezkuntzaren ikuspegia eta zer-nola konprometituko diren ingurunearekin.

Une hori erabakigarria da IHP prestatzeko prozesuan. Hezkuntza ulertzeko moduei buruz egiten dute gogoeta familiek, ikasleek eta profesionalek ikuspegiak bateratzeko eta beren ametsezko IKASTETXEA zehazteko: familiek beren seme-alabak zaintzeko ardura ematen dioten ikastetxea; ikasleek beren bizitzako aldi garrantzitsu bat igaroko duten ikastetxea, pertsonalki, sozialki eta akademikoki garatuko direna; eta profesionalen garapen profesionala, inplikazioa eta gizartearekiko konpromisoa gauzatzeko zentroa.

Hezkuntza-komunitatearen arrazoizko nahiak zertzeko, beharrek, aurreikuspenek eta nahiek bat egin behar dute indarreko legediaren araberako printzipioekin eta helburuekin. Alderaketa horretatik sortuko dira ikastetxeak nabarmendutako balioak-helburuak eta ezaugarriak.

Nahiz eta ezarritako printzipioek eta helburuek hezkuntzaren oinarrizko alderdiei egin erreferentzia, gogoan hartu behar da, denborak aurrera egin ahala, aldaketa sozialen ondorioz, aldatu egin direla. Halaber, kontuan izan beharko dira ikastetxe bakoitzaren ibilbidea eta orain arte ezarritako lehentasunak.

Jarraian, hezkuntza-komunitateak berak zehaztutako testuinguruaren eta egin beharreko hautaketaren ardatz izango diren ideia nagusietako batzuk aipatuko ditugu:

- **Inklusibotasuna.** Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartuko duen ikastetxea nahi dugu, pertsona guztiei irekita egongo dena, eta ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena.
- **Ekitatea.** Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera-berdintasuna eta berariazko edo beharrezko babesa bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu.
- **Ikasleekiko errespetua.** Ikasleak hazten ari diren pertsona libre gisa hartuko dituen ikastetxea nahi dugu, beren autonomia pertsonala are gehiago garatzearen alde lana egingo duena.
- **Bizikidetza.** Giza eskubideak eta bizikidetza demokratikoaren printzipioa jarduera osoan errespetatuko dituen ikastetxea nahi dugu.
- **Askatasuna, erantzukizuna eta justizia.** Askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna eta justizia bultzatuko dituen balioak ikastetxea nahi dugu.
- **Gizabidea.** Gure ikasleak beren ingurune kultural eta sozialarekin konprometituta egongo diren herritar kritiko, erantzule eta integratu izateko prestatuko dituen ikastetxea nahi dugu.
- **Parte-hartzea.** Ikastetxe anitza nahi dugu, pertsona guztiei abegi egingo diena; familien, ikasleen eta profesionalen arteko lankidetza sustatuko duena; eta ingurunean eta, oro har, gizartean inplikatuta egongo dena.
- **Kultura-artekotasuna.** Beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikide izateko, kultura-artekotasuna bultzatuko duen ikastetxea nahi dugu.
- **Irakasleen gaitasun profesionala.** Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beren oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko.
- **Hezkidetza.** Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duen ikastetxea nahi dugu.
- **Normalizazioa eta eleaniztasuna.** Euskararen normalizazioa bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duen ikastetxea nahi dugu.

6A tresnak (77. or.) printzipio, balio eta ezaugarri sorta bat aipatzen du, atal honetako erabakiak hartzeko balio duena. Gainera, ikastetxe bakoitzak garrantzitsu iritzitako beste batzuk ere gehitu ditzake.

# Printzipio, balore eta identitate ezaugarriak (hainbat ikastetxetatik jasotako testuak)

Gure eskola publikoa, euskalduna eta berritzailea da, beraz:

- Publikoa den heinean akonfesionala, konpentsatzailea eta anitza izango da: egon litezkeen mota guztietako desberdintasunek tokia izango dute eta ikasleen artean ematen diren desoreka sozialak konpentsatzen ahaleginduko da.
- Elkartasunaren, besteenganako errespetuaren eta begirunezko jarreren alde egingo du, eta bertan pentsaera guztiek tokia izango duten arren, eskolak ez du bereziki bat bera ere bultzatuko.
- Euskalduna izanik, ikasleak euskalduntzeaz gain euskara beraren normalizazioa bilatzen duen eskola izango da.
- Eguneroko errealitatean murgilduta bizi den eskola bat nahi dugu; etengabe egokituz joango den eskola berritzailea eta gaurkotua.

Euskara eta euskal kulturaren sustatzen duen ikastetxea gara eta ingurune eleanitz eta kultur anitza bere egiten duena.
Eragile guztien -guraso, ikasle, irakasle, ez-irakasle- partaidetza aktiboa bultzatuko dugu. Elkarlana eta norberaren askatasuna lehenesten ditugu, kideen arteko errespetuari lotuta.
Talde-lana eta herriko hainbat fororen lankidetza izango dira gure ekintzaren ardatz.
Etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza pedagogikoa izango da gure eskolako zutarri.

· **Euskalduna**: euskara izango da komunikazio-hizkuntza. Euskal ohiturak eta euskal kultura ere bultzatzen dira.
· **Inklusiboa**: Heziketa ikasleen ezaugarrietan oinarritzen duen eskola bat gara, eta helburua da haiek gaitasun guztiak garatu ahal izatea ezaugarri horiei egokitutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu baten bidez.
· **Baterako hezkuntza**: ...
· **Plurala**: ...
· **Berritzailea**: ...
· **Eleanitza**: ...
· **Akonfesionala**: ...

[redacted] institutuko heziketa-komunitateak ikastetxe irekia izan nahi du, eta aniztasuna zein askatasuna errespetatzen dituena. Akonfesionala, baterako hezkuntzaren eta inklusioaren alde egiten duena eta ordezkari bidezko kudeaketa-modalitatea duena. Hori guztia, bizikidetasun libre eta demokratikoko klima batean.

Irakaskuntza zerbitzu publikoa dela ulertzen dugu, desberdintasunak orakatzen dituen faktorea dela eta jendartean jendarteratzeko eta sartzeko tokia dela, eta etengabe hobetzeko joera duela.

Eskolaren helmuga ikaslearen garapen harmonikoa eta globala suspertzea da:

- Ikasle bakoitza izaki globala denez, pertsonaren garapen emozionalari, sozialari eta kognitiboari ematen diogu garrantzia. Ikastetxean ditugun egiturek aukera emango diote ikasleari izateko, bizitzeko eta ikasteko.
- Bizitzarako tresnak eta gaitasunak suspertu nahi ditugu. Azken finean, ikasle bakoitzari aukeratzeko, pentsatzeko, adierazteko, norbera den bezala agertzeko eta bere berezitasunez jabetzeko aukera eman nahi diogu.
- Ikasle gogotsuak, jakin-mina dutenak, biziak eta ekintzaileak izatea; norbanako eta taldeko erronkei sormenez, konfiantzaz, arduraz eta zentzu kritikoz jardutea nahi dugu.

Gure hezkuntza prozesuaren funtsezko helburua ikaslea da, bere osotasunean hartuta. Bakoitza bere beharrizanen arabera atendituz, nor beren gaitasunen hazkundearen bitartez maila akademikorik onena lor dezan, elkartasunean, errespetuan, tolerantzian, arduran, zentzu kritikoan eta gizarte parte hartze aktiboan heziz.

Aniztasunaren aldeko ikastetxe irekia, inklusiboa, hezkidetzagilea, ez diskriminatzailea eta balore demokratikoen bultzatzailea.

**d) PERTSONAREN AUTONOMIA ETA AUTOESTIMUA**

- Gure ikasleek beren buruaren irudi positiboa eraikitzea, beren mugak onartuz eta beren aukerak ezagutuz.
- Helburu zehatzak, mailakatuak eta arrazoizkoak lortzeko konpromisoa eskatuko zaie; eta beren burua ebaluatzen irakatsi.
- Beren gaitasunarekin eta aukerekin egokiak diren eginkizunak proposatuko zaizkie, ikasteko prozesuan aurrera egiteko.
- Beren ekimenak eta eskolako eginkizunetako ahalegina balioetsi egingo dituzte.
- Besteekiko harremanak eta bizikidetza egokia erraztu egingo dituzte.

**e) ERANTZUKIZUNA ETA AHALEGINA**

- Beren printzipioen eta balioen arabera jardutea, eskolak proposatu eta onartutakoak errespetatuz.
- Gai izatea bere betebeharrak betetzeko, erabakiak onartzeko eta horien ondorioak bere egiteko.
- Ikasleak banakako eta taldeko lana ebaluatzea sustatuko da, eta bere nahiz besteen ahaleginaren emaitzan balioestea ere bai.

## 3.3. ZER LORTU NAHI DUGU? HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

Ikastetxearen printzipioak, balioak eta ezaugarriak zehaztu ondoren, hezkuntza-komunitateak bere egiten dituen horiek, fase eraginkorrago batera igaroko gara: asmoak helburu bihurtuko ditugu, eta, ondoren, jarduteko lehentasunak ezarriko.

*Helburuek, kasu batzuetan, jomuga-izaera dute, lortu beharreko xedeak direnez; beste batzuek, aldiz, joera-izaera dute, jarraitu beharreko orientabideak direnez. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, helburuetan gehienak bigarren mota horretakoak izango dira. Helburu horiek ikastetxean emango d(ir)en etap(et)ako helburu orokorrekiko koherenteak izan behar dira*[5].

Honako hauek dira ezaugarri nagusietako batzuk:

- Aurreko atalean *(3.2. Nor gara?: printzipioak, balioak eta ezaugarriak)* aipatutako printzipioekin eta balioekin bateragarriak izango dira.
- IHPren garapenean ikastetxeko beste dokumentu batzuen (ICP, AJA, programazio didaktikoak, etab.) helburuak are gehiago zehazteko orientabide gisa balioko dute.
- Ikastetxearen jarduera-esparruei buruzko alderdiak jasoko dituzte, zentroaren osotasuna barne hartuz.
- Indarreko legeditik eratorritakoak izan arren, ikastetxe bakoitzak aipatutako legedia zein eratara bereganatzen duen adierazko dute.
- Dagokion etapako helburuen eta xedeen araberakoak izango dira.

Ondoren, helburuak lehenetsiko dira; besteak beste, premiaren, aukeren eta eskuragarritasunaren irizpideak aintzat hartuta.

7. tresnak (81. or.) helburuen zerrenda bat jasotzen du, atal horretako erabakiak hartzen laguntzeko. Ikastetxe bakoitzak garrantzitsu iritzitako beste helburu batzuk ere gehitu ditzake.

[5] Eusko Jaurlaritza (1997). *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua prestatzeko gida*, 23. or.

## Ikastetxeek beren IHPetan idatzitako helburuen adibideak

1. Autoestimua garatzeko giroa sortzea.
2. Beren dohainak eta beren gaitasun fisikoak, intelektualak, afektiboak, sozialak eta etikoak aurkitzen, ezagutzen eta garatzen laguntzea.
3. Banakotasunaren printzipioa errespetatzea.
4. Familiekiko hezkuntza-eginkizuna koordinatzea, eta umearen garapen osoa indartzeko baterako ekintza bultzatzen saiatzea.
5. Nork bere erabakiak erantzukizunez eta askatasunez hartu ahal izateko gaitzea eta zentzu kritikoa garatu eta erabiltzea.
6. Jolasaren eta kirolaren bidez garapen fisikoa eta gorputzaren garapena piztea eta, aldi berean, higiene-, osasun- eta elikadura-ohiturak bultzatzea.

1. Hezkuntza-harreman pertsonal bat sustatzea, konfiantzan oinarritua, denak integratuta sentitzeko.
2. Lana egiteko eta ikasteko giroa piztea.
3. Parte hartzea eta bizikidetza errazteko, taldearen eta ikasgelaren mailan akordioak eta arauak finkatzea, eta denen ongizaterako printzipio gisa horien errespetua sustatzea.
4. Bizikidetzarako heztea, pertsonaren autonomia eta erantzukizuna modu orekatuan konbinatuz.
5. Ikastetxeko giza baliabideei eta baliabide materialei ahalik eta etekinik handiena ateratzea.
6. Ikastetxea ikasleek bizi duten errealitatera hurbiltzea eta jendartearen, kulturaren eta familiaren ingurunearekiko sentikor bihurtzea.

1. Gure institutuan guztiontzat atsegina den lan-giroa sortzea.
2. Hezkuntza-komunitateko sektore guztien arteko komunikazioa eta elkarlana bermatzea.
3. Gure ikasleen nortasunaren garapen osoa sustatzea, eta beren kabuz ikasten, arrazoitzen eta erabakiak hartzen laguntzea.
4. Gure ikasleak giza eskubideekiko, balio etikoekiko eta askatasunekiko errespetuan heztea. Sexu, arraza edo erlijioagatiko arbuio- edo bereizkeria-jarrerak saihestea; ingurunearekiko eta kolektibitatearekiko konpromiso solidarioa eratzea, eta gizalegezko ohiturak garatzea.
5. Desadostasunak hitz eginez konpontzeko gai diren pertsonak heztea, eta, beraz, indarkeriarik erabili gabe hausnartzeko eta pentsatzeko gai direnak.
6. Lana taldean egitea, guztien ekarpenak errespetatuz eta norberaren eta besteen ideiak garatzen lagunduz.

1. Ikasle bakoitzak bere burua ezagutzea (zaletasunak, aukerak, mugak, norbere buruaren irudia), bere hobe beharrez eta besteekin dituen harremanak positiboak, alaiak eta atseginak izan daitezen.
2. Komunikabideen garrantzia dela eta, horiek balioesteko eta kritikatzeko gaitasuna garatzea, informazio-igorle eta -hartzaile askea eta arduratsua izatera heltzeko.
3. Erantzukizun pertsonala eta taldearena lanera eta jendartera bultzatzea.
4. Etapa amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakingo dituzte ikasleek, eta atzerriko hizkuntza batean ulertzeko eta hitz egiteko oinarrizko maila lortuko dute (ingelesa).
5. Ikasleek inguruko historiaren, jendartearen eta kulturaren gaineko oinarrizko ezagutza bereganatzea, gai izan daitezen ezagutza hori aktiboki garatzen parte hartzeko eta beste kultura batzuekiko harremanean irekiak izateko.

## 3.4. NOLA LORTU NAHI DUGU? CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA.

Ezarritako helburuak gure ikasleekin nola lortu nahi ditugun aztertzean, honako alderdi hauek landu beharko ditugu: jardueraren programazioa; ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa; eguneroko, koordinazioko eta prestakuntzako jardueren antolaketa... Hau da, egunez egunekoan, zer-nola esku hartuko dugun. Era berean, asmo horretatik eratorritako ezaugarri metodologikoak zehaztu beharko ditugu. Hori guztia modu eraginkorrago batean geratuko da jasota Curriculum-proiektuaren eta AJAren garapenean.

Atal honetan aipatu beharko ditugu curriculum-garapena gidatuko duten ezaugarriei, printzipio metodologikoei eta antolaketa-printzipioei buruzko erabakiak, irakasle bakoitzaren jardunbidea ere gidatuko baitute, garenaren eta lortu nahi dugunaren arabera jarduteko.

Horretarako, gogoan hartu behar da ikastetxean esparru desberdinen gaineko akordiorik hitzartu den: akordio horiek ikastetxearen dokumenturen batean jasota geratu direnak (ICP, AJA, Hizkuntza-proiektua, Bizikidetza-plana, etab.) edo esplizitatu beharreko akordio inplizituak direnak izan daitezke. IHP prestatzean, aukera egokia du komunitate osoak horiek guztiak berrikusteko, eguneratzeko eta/edo berresteko.

### 3.4.1. Curriculum-esparrua

Curriculum-esparruari ekitean, alderdi pedagogikoei eta didaktikoei (aukera metodologikoak, ebaluazioaren izaera eta erabilera), hezkuntza-eskaintzari, aniztasunaren aurreko erantzunari, orientabideari eta tutoretzari, hizkuntzen tratamenduari eta erabilerari eta prestakuntzari eta berrikuntzari egingo zaie erreferentzia.

#### Aukera metodologikoak

Atal honetako hezkuntza-proposamenek aintzat hartuko dituzte irakasleei, ikasleei, gaitasunak eskuratzeari eta baliabideen erabilerari buruzko alderdiak:

- Ikaslea ikaskuntzan inplikatzea, bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko eta ikasteko nahia pizteko.
- Ikasleen autoerregulazioa bultzatzea eta beren autonomia sustatzea, beren ikaskuntzak eraikitzeko estrategia gisa.
- Hezkuntza pertsonalizatuaren printzipioak garatzeko ikasleei buruzko ezagutzan oinarritu beharra dago. Halaber, beharrezkoa da ikasleen gaitasunetan uste osoa izatea eta irakaskuntza beren berezitasunetara egokitzea.
- Irakaslea erritmo-aniztasuna errespetatuko duten ikaskuntza-egoeren diseinatzaile eta eskaintzaile izatea lehenestea.

- Jarduerak diseinatzean berdinen arteko elkarreragina nabarmentzea, ikaskuntza-estrategia gisa eta banakako lana eta talde-lana.
- Planteamendu globalak eta/edo diziplina artekoak bultzatzea, arlo eta/edo diziplina guztietako ezagutzak integratzen dituzten ariketak proposatzeaz gain.
- IKTak curriculumean integratzea eta planteamendu metodologiko berritzaile bat indartzea, tresna teknologikoen eta baliabide digitalen erabilera sustatzeko.
- Oinarrizko gaitasunak gizabidearen ezinbesteko ikaskuntza gisa hartzea.
- Denbora eta espazioa malgutasunez antolatzea, ikasleen premien eta beren ikaskuntza-prozesuaren arabera.
- Askotariko baliabide didaktikoak erabiltzea eta ingurunearen aukerak aprobetxatzea (pertsonak, eskaintza sozioedukatiboa, erakundeak, etab.).
- Egungo gizartean eskubide osoko herritar izateko beharrezkotzat jotako edukiak txertatzea curriculumean. Esaterako, honako hauek:

  - *Jasangarritasuna*: arazoen garrantziaz eta izaera globalaz jabetutako herritarrak heztea eta erabaki zuzenak hartzeko prozesuetan parte hartzeko prestatzea: kontsumo arduratsua, garapen jasangarria ahalbidetu dezaketen aurrerapen teknozientifikoak, aniztasun biologikoaren eta kulturalaren babesa maila lokalean eta globalean, etab.

  - *Hezkidetza eta genero-berdintasuna*: pertsonen garapen integrala sustatzea, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak aparte utzita; bazterketa mota guztien eta genero-indarkeriaren aurka heztea; ikastetxeko jarduerak planteamendu hezkideen arabera osatzea; etab.

  - *Kultura-artekotasuna*: beste kultura batzuen inguruko ezagutza eta errespetua bultzatzea, mundu globalean bizitzen jakiteko; gazteen etorkizuneko ohiko bizimoduaren ezaugarri izango diren mugikortasunerako eta kultura desberdinen arteko bizikidetzarako heztea.

  - *Ingurune birtualak eta sare sozialak*: agertoki digitalak eta birtualak ikaskuntzarako aukera berri gisa hartzea eta jarrera kritikoz erabiltzea. Parte-hartzean eta sare sozialen erabileran heztea.

### Ebaluazioaren izaera eta erabilera

Ebaluazioaren gaineko proposamenak zehazteko orduan, gogoan izan beharko dugu gaitasun-curriculuma garatzeko eta askotariko ikasleei arreta emateko, ebaluazio-planteamenduak osatzeko ikuspegi berriak erabili beharko ditugula.

Ebaluazioa plangintza behar duen prozesu sistematikoa da; ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari buruz informazio esanguratsua modu jarraituan lortzea ahalbidetzen du, eta lagungarria da analisia egiteko eta baliozkotzeko, eta erabakiak hartzeko. Bi helburu ditu: heztea eta egiaztatzea.

Hartarako, hauxe hartuko dugu kontuan:

- Ebaluazioak izaera hezitzailea du, hartutako erabakien xedea ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzea denean, eta premiak hautemateko, diagnostikoa egiteko eta prozesu osoa birbideratzeko baliagarria bada.
- Autoebaluazioko estrategiak garatzeak ikaslearen motibazioa areagotzen du, bere ikaskuntzaren protagonista sentiarazten duelako, eta «ikasiz ikasteko» nahiz «bere autonomia eta ekimen pertsonala» garatzeko gaitasuna ematen diolako.
- Ikaskuntza-prozesuen, irakaskuntza-jardueraren eta lortutako emaitzen ebaluazioak hobekuntzari bultzada jarraitua ematen dio.
- Ebaluazioan askotariko estrategiak eta baliabideak erabiltzea aniztasunarekiko erantzunari mesede egiten dion adierazle argia da.
- Ebaluazioak izaera egiaztagarria du, hartutako erabakiak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren amaierako emaitzak (ikasturtearen amaierakoak, zikloaren edo etaparen amaierakoak) baliozkotzera bideratzen direnean, aurrez ezarritako irizpideei jarraiki.
- Ebaluazioak duen egiaztatze-funtzioak prozesuaren amaierako maila igarotzearen eta/edo titulazioaren bidez errekonozimendu soziala dakar eta eskatzen du, modu argian, gardenean eta objektiboan zehaztea, hedatzea eta aplikatzea.

### Hezkuntza-eskaintza

Alderdi hauek zehaztuko dira atal honetan:

- Hezkuntza-eskaintza eta ikastetxearen nahiz gainerako zerbitzu osagarrien plangintza-proposamenak egiteko irizpideak.
- Ikastetxeak, bere autonomiari helduta, aukerakotasun-eskaintza osatzeko erabiliko dituen irizpideak, aintzat hartuta ikasleen

ikaskuntza-estilo eta motibazio askotarikoei erantzutea izango dela helburu nagusia.

- Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen proposamenak bideratzeko irizpideak.

### Ikasleen aniztasunari erantzutea

Honako hauek lortzeko baliagarriak diren aukerak hautatuko ditugu:

- Ikasle guztien inklusio osoa eta eskola-arrakasta bermatzea ingurune normalizatuetan, beren hezkuntza-beharrak agertu ahala hautemanda, eta horietan esku hartuta.
- Ikasle guztientzako ikasteko eta parte hartzeko aukera eraginkorrak sortzea.
- Gure erabaki guztiak asmo etikoen araberakoak izatea.
- Beharrezkoa bada, curriculuma ikaslearen beharren araberakoa izatea bermatzea, tutoretza eta plan pertsonalizatuen bidez, baita hartutako neurriek izaera inklusiboa izatea bermatzea ere.
- Arreta goiztiarraren, Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren[6] eta guztientzako irisgarritasunaren aldeko apustu argia egitea.

### Orientabidea eta tutoretza

Adostutako tutoretzaren planteamendua norbanakoen eta taldearen beharrei erantzutea izango da, honako hauek aintzat hartuta:

- Ikasleek beren bizitza-proiektua arduraz bereganatzea da helburu nagusia.
- Taldearen eta ikasgelaren arteko kohesioa sistematikoki landu behar da, bertan gauzatzen baita ikaslearen gizarteratzea.
- Ikasle berriei harrera egitetik hasten da, eta beste ikastetxe, ziklo edo ikasketa batzuetarako trantsizioetara zabaltzen.
- Ikasle bakoitzaren laguntzak esparru pertsonala, akademikoa eta orientazio profesionalekoa hartzen ditu. Prebentziozkoa eta proaktiboa izatea izango dira bere izaeraren ezaugarriak.
- Tutoretza-jarduera funtsezkoa da hezkuntza-prozesu osoan eta berezkoa zaio irakaskuntza-jarduerari; hau da, ez dagokio bakarrik irakasle tutoreari.
- Familien eta ikastetxearen arteko lankidetza orientazio-funtzioaren ardatz nagusietako bat izan behar da.

[6] Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (IDU) ikasle guztiek curriculum arrunteko eduki eta helburu guztietara sartzeko aukera izango dutela bermatzea xede duen hezkuntza-ikuspegia da.

### Ikastetxearen hizkuntza-plangintza

Atal honetan, ikastetxeak hizkuntzen erabilera eta tratamendua landuko ditu; besteak beste, honako hauek zehaztuta:

- Euskararen normalizaziorako neurriak bultzatzeko irizpideak.
- Hizkuntzen tratamendua (H1, H2, H3, etab.) eta planteamendu integratu batetik eratorritako ondorio metodologikoak eta antolakuntzazkoak.
- Hizkuntzen erabilera kudeaketaren, komunikazioaren eta eskolaz kanpoko jardueren esparruetan, besteak beste.
- Ikastetxean irakasten diren hizkuntza guztien irakaskuntzan koherentzia metodologikorako lagungarri diren irizpideak eta arlo horretan irakasleek, familiek eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek egindako ekarpena.
- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako hezkuntza-planteamendua.

### Prestakuntza eta berrikuntza

Etengabeko hobekuntzarako ezinbestekotzat jotzen diren estrategiak ezarriko dira:

- Ikasgela eta praktikaren analisia ardatz diren prestakuntza, ikastetxearen ikuspegiaren arabera planifikatuta.
- Garapen profesionala sustatzeko prestakuntza, XXI. mendeko irakasleei dagozkien gaitasunak eskuratzera bideratuta.
- Berrikuntzaren ardatza eta xedea irakaskuntza hobetzea da.
- Berdinen arteko prestakuntza, ikuspegi globalaren eta diziplina-artekoaren arabera.
- Prestakuntza irekia familientzat eta komunitateko gainerako kideentzat.

**Curriculumaren esparrua: IHP eta beste dokumentuen arteko harremana (hainbat ikastetxetatik jasotako testuak)**

## IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Gure seme-alabek eta gure ikasleek ezberdintasunean eta aniztasunean jakin dezatela ikusten dohain bat eta balio bat, eta ez bereizkeria-faktore bat.

Hezteko planteamenduen arabera antolatu eta erabiliko dira ikastetxeko eremuak: lagundu egiten digute ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eta bizikidetzako giro positibo bat eraikitzen. Hori zaintzea denon erantzukizuna da

Heziketa pertsonalizatuaren printzipioetan oinarritutako metodologia bat garatuko dugu.
... ebaluazioak trebatzeko duen gaitasunari lehentasuna emanez.




... Ikastetxe berritzaile baten alde egiten dugu.

## IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA

Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaizkien berariazko laguntzak modu inklusiboan emango dira.

Aniztasuna aintzat hartzeko ohiko egoeretan hartzen diren neurriei lehentasuna emango zaie, ezohiko gertaeretan hartu beharrekoei baino lehen.




... Ikaskuntza-prozesuan dauden unearen gaineko informazioa ikasleei etengabe ematea.

... Laneko planean, ebaluazio-irizpideak azalduko dira.

Institutuko departamentu guztiek IKTak curriculumean sartzeko plan bat landuko dute Plan horietan, ikaskuntzan eta IKTek gaitasunak eskuratzeko ematen duten laguntzan jarriko da enfasia, eta ez da ahaztuko funtsezkoa ikastea dela eta ez IKTak.

### URTEKO PLANA

Ikasgela egonkorra lehen solairuko korridorean jarriko da, bigarren zikloko ikasgelen ondoan, ikasle guztien artean elkarreragina sustatzeko.

Jolas-orduaren ordutegia berbera izango da ikasle guztientzat.




### PROGRAMAZIOAK

Aurkeztutako ariketak eta lanak zuzendu egingo dira, ertzetan oharrak jarrita, ikasleei gaitasunak zenbateraino eskuratu dituzten eta ikaskuntza hobetzeko estrategiak zein diren jakinarazteko. Hala badagokio, kalifikazioa jarriko zaio.



### PLAN EKONOMIKOA

Ikasturte honetan, 8.543 euro esleitzen dira DBHko 3. mailako ikasgeletarako arbel digitalak erosteko.



### 3.4.2. Antolakuntzaren esparrua

Antolakuntza-esparruari aurre egitean, ikastetxearen antolaketari, funtzionamenduari eta kudeaketari, parte-hartze ereduari eta bizikidetzari loturiko alderdiak sartuko dira.

#### Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa

Ikastetxea, curriculuma garatzeko, ikasleek ikasteko eta irakaskuntzarako esparrua da. Hezkuntza-prozesuen berrikuntza eta hobekuntza errazteko, betiere ezarritako helburuei jarraiki, funtsezkoak dira eskola-antolaketa eta ikastetxearen egitura formalak eta informalak.

Antolaketa eta kudeaketa optimoak lortzea da helburua, horretarako prozesuak eta prozedurak sistematizatzearen alde eginez, ikastetxearen funtzionamendu onari zuzenean eragingo baitio. Hori horrela, honako alderdi hauek hartu daitezke aintzat:

- Antolamenduko pertsonei funtzioak eta egitekoak esleitzeko, ekitate- eta gaitasun-irizpideak hartuko dira oinarritzat, eta guztien koordinazioa, inplikazioa eta konpromisoa sustatzea izango da helburua, egiteko komuna gauzatzeko.
- Curriculuma gaitasun-ikuspegiaren arabera osatzeak irakaskuntza-ikaskuntza estrategia berriak eskatzen ditu, aldi berean, ohikoez gain (zikloak, sailak, irakasle-taldeak, etab.), antolaketa-egitura berriak behar dituztenak, proiektu globalak ahalbidetzeko nahiz prozesuak diziplina-artekoagoak (arloak eta ikasgaiak uztartuta) izateko.
- Ibilbide bereko ikastetxeetako curriculumak koordinatu ahal izatea bermatuko duten antolaketa-egiturak ezartzeko premia.
- Oinarrizko Hezkuntzako talde-gela bakoitzean esku hartzen duen irakasle-kopurua murriztu ahal izateko irizpideak.
- Ikasgelak, instalazioak, denborak, baliabideak, eta abar erabiltzeko irizpideak ezartzea, IHPn ezarritako helburuak eta xedeak lortzera bideratuko direnak, hezkuntza-komunitateari eta, oro har, gizarteari ikastetxe-eredu gero eta irekiagoak eskainiz.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketan prozedura gardenak eta baliabideok banatzeko irizpideak ezartzeko beharra, ikastetxearen behar eta aurreikuspen guztien gaineko ikuspegi globalaren arabera, eta behar diren lehentasunak ezarrita modu parte-hartzaile eta demokratikoan.
- Eskola-egutegia eta -ordutegia osatzeko irizpideak, IHPn ezarritako helburuak lortzea eta hezkuntza-komunitatearen beharrei eta gizartearen eskakizunei erantzutea ardatz direla.

### Parte hartzeko eredua

IHPk hezkuntza-komunitateak ikastetxearen bizitzan, kudeaketan eta ebaluazioan parte-hartze eraginkorra izatea bermatuko duten akordioak jasoko ditu, akordioaren eta adostasunaren bidez. Honako alderdi hauek nabarmenduko dira:

- Irakasleek ere ikastetxearen proiektu komunaren kudeaketan erantzukizuna izatea.
- Ikasleei eskola-jarduerako esparru guztietan parte hartzeko bideak eskaintzea, batez ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko (norbanakoarena nahiz taldearena) protagonista izateari dagokionez.
- Familien eta irakasleak ez diren langileen parte-hartzea bultzatzea ikastetxearen kudeaketan, inplikazioa eta konpromisoa sendotzeko, antolakuntza-prozesuak sustatuta eta gelako ordezkariak, ordezkarien batzordeak, ikasgelako arduradunak, batzorde mistoak, boluntarioak, eta abar, ezarrita.
- Hezkuntza-komunitatearen eta ikastetxearen ingurunearen (GKEak, elkarteak, etab.) arteko elkarreragina sendotzea, hezkuntzaren dimentsio soziala garatzeko eta kanpo-eragileen parte-hartzea ahalbidetzeko, eguneroko zereginetan integratuta.
- Ikastetxeen, erakundeen eta bestelako eragile sozialen artean egituratutako sareetan parte hartzeari irekitako komunitatea proposatzea.

### Bizikidetza

Ikastetxea mikrokosmos gisa har dezakegu, bizitza-espazio gisa, harreman eta komunikazio jarraituak dituena, eta, modu positiboan garatuz gero, bizikidetza eta eskola-ingurunea hobetuko dituena. Horretarako, hainbat proposamen jaso beharko dira, honako hauek lortzeko:

- Bizikidetza-, hezkidetza- eta genero-indarkeria prebenitzeko planak modu parte-hartzailean osatu eta aplikatuko direla bermatzea, betiere, hezkuntza- eta prebentzio-izaera lehenetsita.
- Bizikidetzako esku-hartzeak bideratzea, gatazkak modu positiboan konpontzeko gaitasunak garatuta. Honetarako, honako estrategia hauek erabiliko dira: bitartekaritza, erabakiak elkarrekin hartzea, bat-egitea eta erreparatzea.
- Bizikidetzaren alorrean hartutako erabakiak ICPren garapenean jasota daudela ziurtatzea, ikasgelan bizikidetza bultzatzeko metodologiak ezartzea sustatuta.
- Bizikidetza-behatokia eta -batzordea indartzea, harreman positiboetan oinarritutako bizikidetza-giroa eta -kultura lortzeko.

**Antolamenduaren esparrua: IHP eta beste dokumentuen arteko harremana (hainbat ikastetxetatik jasotako testuak)**

## IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikasleek beren burua erregula dezaten sustatzea eta beren autonomian laguntzea, beren ikaskuntzak eraikitzeko estrategia gisa.




Erabakigarritasunez bultzatuko ditugu proiektuak garatzea ahalbidetzen duten antolamendu-egitura berriak; proiektu horiek ikuspegi orohartzailea izango dute, eta ezagutzak barneratzen eta gaitasunak eskuratzen lagunduko dute.

Irakasleen koordinazioan sakonduko dugu, erabakitako proiektuen garatzean erantzun hobea emateko.

Ikastetxeko prestakuntzan, hausnarketara eta proposamenak egitera bideratutako ildo bat irekitzea ziurtatuko dugu; proiektu horiek garatzen sakontzeko irakasleek izan behar dituzten gaitasunen gaineko proposamenak izango dira.

Gure ikastetxean lehentasuna emango zaie bizikidetza positiboa garatzen duten esku-hartzeei, bitartekaritzaren eta adiskidetzearen bidez, eta, beharrezkoa denean, egindako kaltea konponduz.

Bizikidetza Planean estrategiak bilduko dira: gatazkak era baketsuan ebaztekoak eta bitartekaritzaren gaitasunak eskuratzeko ikasleek behar duten prestakuntzarenak.

Bizikidetzaren Behatokiak adiskidetzea eta konponketa garatzeko heziketa-neurriak proposatuko ditu, desegokiak eta bizikidetzaren aurkakoak diren jarreren aurrean.

### IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA

Ikasleei lan-unitate edo proiektu bakoitzerako ezarritako ebaluazio-irizpideak ezagutaraziko zaizkie, eta ulertzen dituztela egiaztatuko da ikasleek beren ekintzak irizpide horiek lortzera bideratu ahal izan ditzaten. Ikasleek helburuak nola irudikatzen dituzten egiaztatzeko ahalegina egingo da.

Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatuko ditugu (koebaluazioa), ikasten ikasteko estrategia gisa.




### ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

Ikuspegi orohartzaileko proiektuetan sartuta dauden irakasleak koordinatzeari astean bi ordu eskainiko zaizkio berariaz.




### ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

Ikastetxeko Behatokian, Bizikidetza Batzorde bat eratuko da, eta batzordekideak OOGko sektoreetako bakoitzak hautatuko ditu. Batzorde horrek ikastetxeko bizikidetzaren ohiko jarduna kudeatuko du.

Gainera, bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetza larriki kaltetzen duten jarreren neurri zuzentzaileak izan daitezkeenak ezagutu, aplikatu eta berrikusiko ditu. Azken kasu horretan, erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

### PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK

Esperimentua egin aurretik..., lanetik irten aurretik..., behatu aurretik..., gaia aztertu aurretik..., taldean ebatziko ditugu gai hauek: Zer lortu nahi dugu? Zer egingo dugu? Zertarako egingo dugu? Nola antolatuko gara, eta nola banatuko ditugu eginkizunak?



Eginkizuna amaitzean, galdera hauei erantzungo zaie, lehenbizi banaka eta ondoren binaka: Zer gauza berri ikasi duzu? Zergatik? Zer da garrantzitsuena? Zertarako? Zer falta duzu gaia menderatzeko?

### PRESTAKUNTZA-PLANA

2013-2014 ikasturtean zehar, Berritzeguneko aholkulariari eskatuko diogu koordina dezala ikastetxean proiektuen arduradunekin talde bat hausnartzeko eta proposamen zehatzak egiteko. Proposamen horien bidez, ikastetxeko irakasle guztien eztabaida bultzatuko da, horrelako proiektuak garatzeko behar diren gaitasunen gainean.

### BIZIKIDETZA-PLANA

Gatazketako bitartekaritzaren gaineko berariazko prestakuntza bat egingo da ikasle guztiekin tutoretza-orduetan, berariazko saioen bidez. Prozesua amaitzeko, hezkuntza-maila bakoitzeko ikasle-talde bat proposatuko da, eta ikasle horiek bitartekaritzaren erantzukizun zehatza hartuko dute beren gain.

Hainbat iturritako datuak bilduko dira (inkestak, tutoretzak, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko prozeduren aplikazioa, etab.), eta Behatokiari emango zaizkio eztabaidaren eta adiskidetze eta konponketa neurriak hartzeko akordioaren oinarri izateko.

### 3.5. IHP-REN IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA

Gida honen oinarrian dagoen hezkuntza-planteamendua dela eta, IHPren azken atalean dokumentu honek indarrean segitzeko behar diren akordioak agerian jarri behar ditugu.

IHPn nabarmendutako ezaugarriak eta printzipioak ikastetxearen egunerokotasunean hartutako erabakiak arrazoitzeko lelo izan behar dira. Horrenbestez, funtsezkoa da IHPk berak hainbat jardunbide eta irizpide ezartzea, dokumentuaren indarraldia eta legitimazioa (osaeran parte hartu ez zuten familien eta profesionalen kasuan) bermatzeko, eta, hala behar izanez gero, berrikusteko eta eguneratzeko. Orientazio gisa, honako hauek aipatuko dira:

- IHPren edukiak lantzea familiekin eduki beharreko bileretan.
- IHPren edukiak lantzea ikastetxera iritsi berriak diren profesionalen harrera-prozesuan.
- IHPren ideia garrantzitsuenak nabarmentzea eta hainbat modutara jendaurrean ipintzea: leku berezietan kokatutako panelak, web orriak, triptikoak, etab.
- IHP ezagutaraztea matrikulazio-prozesuetan.
- IHP aipatzea ikastetxearen lehenagoko planetan (ICP, Urteko plana, Bizikidetza-plana, etab.) edo etorkizunekoetan (Plan Estrategikoa, Zuzendaritza-plana eta hezkuntza-administrazioak bultzatutako gainerakoak).
- Hezkuntzako estamentu guztien iradokizunen bilketa sistematikoa erraztea.
- IHP eguneratzeko premiaren berri emango duten adierazleak ezartzea: langile-kopurua nabarmen aldatu da, eragiteko printzipiorik ez egoteak zailtasunak eragiten ditu erabaki gakoak hartzean, dokumentua edo bere atal bat aldatzea aldarrikatzen duen masa kritikoa handia da, ikastetxeko zuzendaritza aldatu da, IHPko adostasun argirik gabeko arloei dagozkien munta handiko proiektuen gaineko erabakiak hartu behar dira, ildo metodologiko garrantzitsuenen legitimazioa eta horiekiko loturak txikiak dira, eta abar.
- AJAn adierazle horietako batzuk jasotzea iradokitzen da eta, halaber, lauzpabost urtean behin hezkuntza-komunitateak IHPrekiko atxikimendua eguneratzeko ekintzaren bat gauzatuko duela zehaztea. Ez du prestatzeko prozesua bezain nekosoa izan beharrik, baina berrikusteko, egunean jartzeko eta familien eta profesional iritsi berrien aurrean legitimatzeko balioko luke.

## Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa
2. Printzipioak, baloreak eta nortasun-ezaugarriak
3. Helburuak eta lehentasunak
    - 3.1. Helburuak
    - 3.2. Lehentasunak
4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak
    - 4.1. Curriculumaren esparrua
        - 4.1.1. Metodologia-aukerak
        - 4.1.2. Ebaluazioa
        - 4.1.3. Hezkuntza-eskaintza
        - 4.1.4. Aniztasunari erantzuna
        - 4.1.5. Orientabidea eta tutoretza
        - 4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua
        - 4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza
    - 4.2. Antolamenduaren esparrua
        - 4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa
        - 4.2.2. Parte hartzeko eredua
        - 4.2.3. Bizikidetza
5. Indarraldia eta mantentzea

*Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren aurkibidearen proposamena*

# 4. Parte-hartzean oinarritutako prozesua

*Ezinbestekoa da ikastetxeak etorkizunerako bidean gidatzea.*

**Ainscow, M. [2001].** *Escuelas inclusivas: aprender de la diferencia.*

Gida honetan orain arte zehaztutakoari jarraiki, Hezkuntza Proiektua prestatzeko prozesuak bere ezaugarri nagusietako bat errespetatu eta babestu behar du: izaera parte-hartzaile eta loteslea.

Prozesua bideratu eta planifikatu egin behar da, eta, era berean, erabat demokratikoa izan behar du, parte-hartzea eskatzen duelako, eta familien, ikasleen, irakasleen eta gainerako eragile sozialen ekarpenei irekita dagoelako. Azken emaitzaren garrantzia gutxietsi gabe, azpimarratu beharra dago prozesua eta dinamika hartuko diren erabakien kalitatearen eta proposamenen sostenguaren adierazle izango direla. Horrenbestez, ahalik eta gardentasun handiena behar da esku-hartzeko estrategiatan, «joko-arauetan» eta erabakiak hartzeko prozeduretan. Ezarriko den osaera-prozesuak bermatu beharko du parte-hartzaile guztien arteko elkarrizketa eta gogoetak barne hartu beharko dituela ikastetxean martxan dauden foro guztiak edo, hala behar izanez gero, osaerarako sortutakoak.

Horrela, dokumentu adostu bat lortu ahalko da, esangura handiko edukia duena eta hezkuntza-komunitatearen atxikipena lortzeko erreferentea izango dena.

### Aurkezpena eta martxan jartzea

Agertoki arruntenean, zuzendaritza-taldeak egingo du Hezkuntza Proiektua prestatzeko, berrikusteko edota eguneratzeko proposamena. Hala, ikastetxeko zuzendaritzak egingo du ekimena proposatzearen premiari eta egokitasunari buruzko lehen balorazioa.

Garrantzitsua da lehen unetik OOGri eta klaustroari jakinaraztea zeintzuk diren egiteari ekiteko arrazoiak eta jarraitu beharreko prozeduraren ildo nagusiak. Hartu beharreko lehen neurrietako bat prozesu osoaren lidergoaz eta garatuko diren faseen koherentziaz arduratuko den batzordea eratzea izango da. Ezinbestekoa da zuzendaritza-taldea bertan egotea gidari-lanetan. Era berean, profil desberdineko profesionalak eta hezkuntza-komunitateko iritzi eta ikuspegi desberdinak egotea bermatu beharko da.

### Motibazioa eta sentsibilizazioa

Funtsezkoa da lehen fase horretan komunitateko kide guztiek parte hartzea (klaustroa, familiak, ikasleak eta gainerako eragileak). Komunikatzeko bide arruntak erabiltzea iradokitzen da: zirkularrak, tutoretza-bilerak, bilerak IGEkin, web orria, etab. Parte-hartzaile guztiek

beharrezko iritzi behar diote hezkuntza-ekintza gidatuko eta zehaztuko duen dokumentuari.

Martxan jarritako prozesuaren gaineko informazio soila ematea baino gehiago egin behar da; Hezkuntza-proiektua osatu edo eguneratu behar dela argudiatu behar da, osatzeko prozesua, espero den emaitza eta hezkuntza-ekintza hobetzeko erabilgarria eta mesedegarria izango dela azalduta.

Ikastetxearen Hezkuntza-proiektua ikastetxean egiten eta martxan jartzen dugun guztiaren asmoa zehazteko lagungarri izan behar da. Lortu nahi dugunak, proposatutako helburuek eta erabiliko ditugun ildo metodologikoek kohesioa emango diote gure eguneroko hezkuntza-jarduerari, AJAn zehaztutako egiturak erabiliz ICPren bidez garatuko denari, hain zuzen ere.

IHP osatzeak edo eguneratzeak dakarren aukerak zailtasun, jarrera erreaktibo, ziurgabetasun eta kritika asko izango ditu aurrean, eta horiek guztiak eztabaidatu eta argitu beharko dira, aurrera egitea nahi bada.

Aurkezten ditugun tresnak gogoeta elkarrekin egiteko eta proposatutako egitekoaren esanahia nahiz irismena adosteko lagungarriak dira.

### Plangintza

Ikastetxe bakoitzak abiapuntu desberdina izango du, bere kultura instituzionalaren, historiaren, uneko egoeraren, irakasleen profilaren, familien eta ikastetxearen arteko harremanaren, etab., arabera.

Komunitateko kideen egitekoak, inplikazioa eta erantzukizunak egoki zehaztu behar dira fase honetan, hala nola prozedura eta prozesuko faseen kronograma (motibazioa-sentsibilizazioa, plangintza, gauzapena, onarpena, hedapena, eguneraketa-berrikuspena).

Ikastetxearen ezaugarrien araberakoak izango dira egitekoa baloratzeko eta haztatzeko gakoak, baita egiteko bakoitzari esleitutako denbora-tartea ere. Hori dela eta, iradokitako denbora-tarteak kasuan kasuan egokitu beharko dira:

- Aurkezpena, sentsibilizazioa, martxan jartzea eta plangintza [hiruhileko bat].
- Garapena, gogoeta, proposamenak eta akordioak [hiruhileko bat edo bi].
- Amaierako idazketa, onarpena eta hedapena [hiruhileko bat edo bi].

Gomendatutako denbora-tarte horiek ikasturtearen arabera proposatu dira, bilerek, gogoetek eta erabakiek jarraitutasun egokia izan dezaten. Hala ere, prozesuaren dinamikak, eztabaiden sakontasunak eta akordioen konplexutasunak zehaztuko dute behin betiko egutegia.

### Plangintzaren garapena

Batzordearen lehentasunezko zeregina egitekoaren eta atal bakoitzaren nondik norakoak eta sakontasuna zehaztea izango da. Era berean, batzordeari egokituko zaio behin betiko onarpenerako proposatuko diren dokumentuak idazteko ardura.

Proiektuaren atal bakoitzak prozedura desberdinak jarraitu beharko ditu osatzeko, baina, oro har, honako hau izango da eskema:

- Iritziak eta informazioa biltzea.
- Ideiak trukatzea, gogoeta egitea, eztabaidatzea eta proposamenak aurkeztea.
- Proposamenak antolatzea eta sistematizatzea.
- Akordioak eratzea eta erabakiak hartzea.

Ikastetxearen ezaugarriak kontuan hartuta, dinamika irekiak proposatu daitezke; hasteko, ideien ekaitza, testu osoa idazteko. Dinamika itxiagoak ere erabili daitezke; aurretiazko dokumentu bat aztertzea, aberasteko, harik eta behin betiko testua onartu arte.

Edonola ere, ikastetxean lehendik hartutako bestelako akordio dokumentatuak aintzat hartu eta erabili beharko dira (bizikidetzari buruzko alderdiak, hizkuntza-tratamendua, ildo estrategikoak, curriculum- eta antolaketa-erabakiak, etab.). Osaera-batzordeak dokumentu horietako ideia garrantzitsuenak berreskuratzearen egokitasuna balioetsiko du, gogoetan eta/edo idazketan txertatzeko prozedura aztertuta.

Estrategia guztiak uztartu ahalko dira, are elkarren osagarri ere izan daitezke, landu beharreko atalen ezaugarriak eta parte-hartzaileen profilak gorabehera. Esaterako, ingurunearen azterketako alderdiei, ezaugarriei eta jarduteko lehentasunei dagokienez, familien eta ikasleen parte-hartzea kontuan hartzekoagoa izango da ildo pedagogikoari buruzkoan baino, azken honen protagonistak irakasleak direnez.

Hezkuntza-proiektuaren edukien eskemari ordenan ekin behar zaio, barne-logika dela eta: puntu baten ondorioek hurrengorako bidea ematen dute. Hala ere, ikastetxeak atal guztiak aldi berean talde desberdinetan lantzeko hautua eginez gero, ezinbestean ezarri beharko du sistema bat, talde bakoitzaren informazioa partekatzea ahalbidetuko duena, denek ezagutu ditzaten adostutako proposamen nagusiak.

### Onarpena

Fase honetan, ez da ahaztu behar oinarrizko helburua eskola-komunitate osoaren egiazko adostasuna lortzea dela. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua denek onartzea behar-beharrezkoa da, hezkuntza-jarduera gidatuko badu.

Batzordeak dokumentuaren zirriborroa helaraziko dio talde bakoitzari, eta zuzenketak aurkezteko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko prozedura jakinaraziko dio.

IHP formalki onartuta egon arren, ez du egiazko baliorik izango, ezta balio praktikorik ere, harik eta komunitate guztiaren berrespena eta konpromisoa jaso arte.

### Hedapena

Proiektua onartu ondoren, hezkuntza-komunitate osoari aurkeztea garrantzitsua da, prestaketan izan duten inplikazio-maila edozein dela ere. Aurkezpen horretan, alderdi esanguratsuenak azpimarratzeaz gain, prozesu parte-hartzailea eta hartutako erabakien kalitate demokratikoa nabarmendu behar dira.

OOGk aztertuko ditu gainerako aukerak eta erabakiko du osatutako dokumentua zein formatutan aurkeztu den: bilera informatiboak, web orria, triptikoa, panel bat ipintzea ikastetxeko leku begien bistako batean, etab.

| FASEA | ARDURADUNA | PARTE HARTZAILEAK | JARDUERA | DENBORALIZAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| AURKEZPENA | ⇨ Zuzendaritza-taldea | • OOG<br>• Klaustroa | • Zeregina aurkeztu-iragarri: IHP eguneratzea, berrikustea eta lantzea. | 1. hirulekoa |
| SENTSIBILIZAZIOA | ⇨ Zuzendaritza-taldea | • Klaustroa<br>• OOG<br>• Hezkuntza-komunitatea | • Sentzibilizazio-lana: bilerak, hitzaldiak, gutunak, zirkularrak...<br>• IHP batzordea sortzea | 1. hirulekoa |
| PLANGINTZA | ⇨ IHP batzordea, zuzendaritza-taldea buru dela | • IHP batzordea | • Epeak jarri<br>• Zereginak banatu<br>• Ardurak esleitu<br>• Prozedurak diseinatu<br>} *Nork?, zer?, nola?, noiz?*<br>· *Aintzat hartu ikastetxe bakoitzaren abiaburua eta berezko kultura.* | 1. hirulekoa |
| GARAPENA | ⇨ Zereginen arduradunak<br>⇨ IHP batzordea | • Zereginen taldeak | • Testuingurua aztertu — · *Datuak, informazioa... biltzea*<br>• Nor gara? — · *Analisiak, eztabaidak, proposamenak...*<br>• Zer nahi dugu? — · *Proposamenak ordenatu eta lehenetsi*<br>• Nola lortu nahi dugu? — · *Ondorioak atera eta erabakiak hartu*<br>• Nola berrikusiko dugu? — · *Lehenengo zirriborroa idatzi* | 2. eta 3. hiruhilekoak |
| ONARTU | ⇨ Organo eskuduna | • Zuzendaritza-taldea buru duen batzordea<br>• Parte hartzen duten kolektiboak<br>• Hezkuntza-komunitatea | • Metodologiak eta erabakiak hartzeko epeak finkatu<br>• Zuzenketak aurkeztu<br>• Onartu | 3. eta 4. hiruhilekoak |
| ZABALKUNDEA | ⇨ Zuzendaritza-taldea | • Zuzendaritza-taldea | • Epeak eta erak finkatu | 3. eta 4. hiruhilekoak |

## 5. Gaian sakontzeko


- ANTÚNEZ, S.; DEL CARMEN, L.M.; IMBERNÓN, F.; ZABALA, A. (1993): *Del Proyecto Educativo a la Programación de Aula.* Bartzelona: Graó.
- ANTÚNEZ, S. & beste batzuk (2000). *El Proyecto Educativo de la institución escolar*. Bartzelona: Graó.
- ANTÚNEZ, S. (2006): *El Proyecto Educativo de Centro*. Bartzelona: Graó.
- BANGUESES, M.L. (2009). *El centro educativo ordinario y el centro específico. Proyectos educativos de centro*. Lulu.com
- BELTRÁN, Fr. & SAN MARTÍN, A. (2000): *Diseñar la coherencia escolar*. Madril: Morata.
- BOLÍVAR, A. (2006): «Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común». *Revista de Educación,* 339. zk., 119-146 or.
- COLLET, J. & TORT, A. (2008): «Espacios de participación». *Cuadernos de Pedagogía*, 378 zk., 57-60 or.
- HEZKUNTZA ETA ZIENTZIA SAILA. GAZTELA-MANTXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. (2007). *El Proyecto Educativo de Centro*. http://www.lascompetenciasbasicas.es/attachments/article/51/proyectoeducativo.pdf. Deskargatu zeneko eguna: 2013-06-03
- ESTEFANÍA, J.L. & SARASÚA, A. (1998): *Proyecto Educativo de Centro: revisión, seguimiento y evaluación*. Madril: CCS.
- FERNÁNDEZ ENGUITA, M. (1992): *Poder y participación en el sistema educativo: sobre las contradicciones de la organización escolar en un contexto democrático*. Bartzelona: Paidós.
- GAIRÍN, J. (1994): «Los planteamientos institucionales. El proyecto de centro», P. DARDER eta J. GAIRÍN (Koord.): *Organización y gestión de centros educativos*, 99-126 or. Bartzelona: Práxis.
- GARRETA, J. & LLEVOT, N. (2007): «La relación familia-escuela: ¿una cuestión pendiente?», J. GARRETA (Ed.): *La relación familia-escuela*, 9-12 or. Lleida: Lleidako Unibertsitatea eta Santa María Fundazioa.
- GIMENO SACRISTÁN, J.; FEITO ALONSO, R.; PERRENOUD, PH.; CLEMENTE LINUESA, M. (2011): *Diseño, desarrollo e innovación del curriculum*. Madril: Morata.
- MARTÍN-MORENO, Q. (2007). *Organización y dirección de centros educativos innovadores. El Centro Educativo Versátil*. McGraw-Hill.

- MARTÍN-MORENO, Q (2010): *Contextualización de los centros educativos en su entorno*. Sanz eta Torres. UNED

- MUÑOZ M. & SARASÚA, A. (2006): *Planteamientos institucionales.* Mensajero.

- PERRENOUD, PH. (1990). *La construcción del éxito y del fracaso escolar: hacia un análisis del éxito, del fracaso y de las desigualdades como realidades construidas por el sistema escolar*. Madril: Morata.

- PERRENOUD, PH. (2006). *El oficio de alumno y el sentido del trabajo escolar*. Madril: Popular.

- PERRENOUD, PH. (2007). *Pedagogía diferenciada: de las intenciones a la acción*. Madril: Popular.

- PERRENOUD, PH. (2007). *Diez nuevas competencias para enseñar*. Bartzelona: Graó.

- RIU ROVIRA DE VILLAR, F. (2010): *Vademécum del Proyecto Educativo de un centro docente público*. Edebé.

- RUDDUCK, J & FLUTTER, J. (2007): *Cómo mejorar tu centro escolar dando la voz al alumnado***.** Madril: Morata.

- TRIGUERO, P. (2007): «Participación y consejos escolares». *Padres y Madres de alumnos y alumnas*, 91. zk., 20. or.

# IHP partaidetza bidez lantzeko bitartekoen dosierra

| Fasea | IHPren atalak | Tresnak: Tresnaren kod | Tresnak: Hartzaileak | IHP idazteko erabil daitezkeen txantiloiak: Hezkuntza Proiektuaren aurkibidea | IHP idazteko erabil daitezkeen txantiloiak: Txantiloia | Adibideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AURKEZPENA SENTSIBILIZAZIOA | | **1** [49. or.]<br>**1A** [51. or.]<br>**1B** [53. or.] | *Irakasleak*<br>*Familiak* | | | |
| | | **2** [55. or.]<br>**2A** [57. or.]<br>**2B** [59. or.] | *Irakasleak*<br>*Familiak* | | | |
| | | **3** [61. or.]<br>**3A** [63. or.] | *Ikasleak* | | | |
| | | **4** [65. or.]<br>**4A** [69. or.] | *Ikasleak* | | | |
| GARAPENA | | | | *Azala – Aurkibidea* | **0** [91. or.] | |
| | **NON GAUDE?** | **5** [71. or.]<br>**5A** [73. or.] | *Hezkuntza-komunitatea* | *1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa* | **1** [95. or.] | [19. or.] |
| | **NOR GARA?** | **6** [75. or.]<br>**6A** [77. or.]<br>**6B** [79. or.] | *Hezkuntza-komunitatea* | *2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak* | **2** [97. or.] | [22. or.] |
| | **ZER NAHI DUGU?** | **7** [81. or.]<br>**7A** [83. or.]<br>**7B** [85. or.] | *Hezkuntza-komunitatea* | *3. Helburuak eta lehentasunak* | **3.1** [99. or.]<br>**3.2** [101. or.] | [25. or.] |
| | **NOLA LORTU NAHI DUGU?** | | | 4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak — *Curriculumaren esparrua*:<br>*4.1.1. Metodologia-aukerak*<br>*4.1.2. Ebaluazioa*<br>*4.1.3. Heziketa-eskaintza*<br>*4.1.4. Aniztasunari erantzuna*<br>*4.1.5. Orientabidea eta tutoretza*<br>*4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua*<br>*4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza* | **4.1** [103. or.] | [31. or.] |
| | | | | 4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak — *Antolamendua-ren esparrua*:<br>*4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua, kudeaketa*<br>*4.2.2. Parte hartzeko eredua*<br>*4.2.3. Bizikidetza* | **4.2** [105. or.] | [34. or.] |
| | **NOLA BERRIKUSIKO DUGU?** | **8** [87. or.] | *Hezkuntza-komunitatea* | *5. Iraunaldia* | **5** [107. or.] | |

**Atal honetan, IHP lantzea errazteko hainbat material aurkezten dira. Ikastetxeen ezaugarri, behar eta egoeren aniztasunaren jakitun izanik, badakigu ezinezkoa dela horiek guztiak asetzea eta guztiei erantzutea. Bitarteko eta txantiloi horiek modu irekian eta orientatiboan hartu behar dira; horrela, ikastetxe bakoitzak egokitu egin ahal izango ditu, bere egoerara moldatzeko, alderdi batzuk gehituz edo kenduz. Bitartekoen helburua atal bakoitzean behar diren lan-dinamika batzuk erraztea da (eztabaida hastea, debatea piztea, parte-hartzea bultzatzea...); halaber, lan-saioetan sortzen diren ondorioak, erabakiak, adostasunak eta proposamenak bilduko dira horietan.**

# Zergatik eta zertarako IHP

## Helburua

Eskola-komunitate osoak intereseko iriztea ikastetxeak bere Hezkuntza Proiektua zehazteari, eta dokumentu horren prestaketan inplikatzea.

Tresna horren bitartez, IHPk hezkuntza-komunitatean duen garrantziari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi dira.

## Dinamizatzeko metodologia

Egitekoa gauzatzeko, **1A tresna** erabiliko da.

Honako hau izan liteke hasierako mezua: IHP osatzea positiboa da ikastetxearentzat, laguntza handia izango baita denontzat. Egin egingo dugu, ondo egin ere, gainera.

Hona hemen **zergatik eta zertarako IHP** hizpide izatean erabili daitezkeen argudioen zerrenda:

a. *Ikastetxeak helburu eta xede komunak izateko.*
b. *Beharren gaineko pertzepzio komuna behar delako.*
c. *Familiek seme-alabentzako aukeratutako ikastetxea zer-nolakoa den jakiteko.*
d. *Garena eta izan nahi duguna era adostuan zehaztea ahalbidetzen digulako.*
e. *Ikastetxeko hobekuntza- eta berrikuntza-prozesuari zentzua eta koherentzia emateko.*
f. *Modu eraginkorrean eta taldean lan egiteko.*
g. *Ikastetxearen autonomia zehazteko eta onartzeko modua delako, bai curriculum arloan, bai antolaketakoan.*
h. *Ikasleek ikastetxearen helburu nagusiak ezagutzeko.*
i. *Eskola-komunitateak nahi duen hezkuntza-aukera adierazi nahi dugulako.*
j. *Ikastetxearen erabakiak eta proiektuak egituratzeko, koherenteak izateko eta orientatzeko.*
k. *Guztiak proiektu komunean inplikatzeko.*
l. *Ikasleen eta familien ikastetxearekiko kidetasun-sentipena indartzeko.*
m. *Sailak eta legediak agintzen dutelako.*
n. *…*

Tresna honetarako, «**elur-bola**» teknika erabiltzea proposatzen dugu:

Banaka ekingo zaio gogoetari. Gero, bikoteka, eta lauko taldetan ondoren. Horrela, gero eta talde handiagoak osatuko ditugu (8, 12 edo 16 pertsonakoak), pertsona-kopuruaren arabera. Talde bakoitzean, bozeramailea edo idazkaria izendatuko da. Atera dituen ondorioak azalduko ditu talde bakoitzak, eta, era adostuan, adierazitako ideia garrantzitsuenak bilduko dira.

(Ikastetxea txikia bada, denek dena aldi berean egitea proposatzen dugu).

## Ondorioak

Egindako lana amaituta, bi egoera ager daitezke: ideia batzuek onarpen zabala lortzea eta beste batzuk bigarren mailan geratzea, edota ideia guztiek onarpen-maila bera lortzea. Bi egoera horietan, ondorioek dokumentua egunean jarrita eta gure beharretara eguneratuta edukitzearen garrantzia azpimarratzeko balioko dute.

Ondorioak **1B tresnan** jasoko dira.


IHP egiteko gida

| | |
|---|---|
| **1B tresna** | *Irakasleria* |
| [sentsibilizazioa] | *Familiak* |

1b

Zergatik eta zertarako IHP

Lortutako emaitzak ikusita, zeintzuk dira IHP eguneratua eta gure beharretara egokitua eduki beharra adierazten duten alderdiak?

ZERGATIK

ZERTARAKO

IHP egiteko gida

| | |
|---|---|
| **1A tresna** | *Irakasleria* |
| [sentsibilizazioa] | *Familiak* |

1a

Zergatik eta zertarako IHP

Ideien zerrenda horietako bi azpimarragarrienak hauta itzazu, aukeraketa arrazoituz.

*a. Ikastetxean helburu eta xede komunak izateko.*

*b. Beharren gaineko pertzepzio komuna behar delako.*

*c. Familiek bere seme-alabentzako aukeratutako ikastetxea zer-nolakoa den jakiteko.*

*d. Garena eta izan nahi duguna era adostuan zehaztea ahalbidetzen digulako.*

*e. Ikastetxeko hobekuntza- eta berrikuntza-prozesuari zentzua eta koherentzia emateko.*

*f. Modu eraginkorrean eta taldean lan egiteko.*

*g. Ikastetxearen autonomia zehazteko eta onartzeko, bai curriculum arloan, bai antolaketakoan.*

## Zergatik eta zertarako IHP

Ideien zerrenda horietako bi azpimarragarrienak hauta itzazu, aukeraketa arrazoituz.

*a. Ikastetxean helburu eta xede komunak izateko.*

*b. Beharren gaineko pertzepzio komuna behar delako.*

*c. Familiek seme-alabentzako aukeratutako ikastetxea zer-nolakoa den jakiteko.*

*d. Garena eta izan nahi duguna era adostuan zehaztea ahalbidetzen digulako.*

*e. Ikastetxeko hobekuntza- eta berrikuntza-prozesuari zentzua eta koherentzia emateko.*

*f. Modu eraginkorrean eta taldean lan egiteko.*

*g. Ikastetxearen autonomia zehazteko eta onartzeko, bai curriculum arloan, bai antolaketakoan.*

*h. Ikasleek ikastetxearen helburu nagusiak ezagutzeko.*

*i. Eskola-komunitateak nahi duen hezkuntza-aukera adierazteko.*

*j. Ikastetxearen erabakiak eta proiektuak egituratzeko, koherenteak izateko eta orientatzeko.*

*k. Guztiak proiektu komunean inplikatzeko.*

*l. Ikasleen eta familien ikastetxearekiko kidetasun-sentipena indartzeko.*

*m. Sailak eta legediak agintzen dutelako.*

*n…*

## Zergatik eta zertarako IHP

Lortutako emaitzak ikusita, zein alderdi dira IHP eguneratua eta gure beharretara egokitua eduki beharra adierazten dutenak?

| ZERGATIK |
|---|
| |

| ZERTARAKO |
|---|
| |

# Zergatik eta zertarako IHP

## Helburua

Eskola-komunitate osoak intereseko iriztea ikastetxeak bere Hezkuntza Proiektua zehazteari, eta dokumentu horretan prestaketan inplikatzea.

Tresna horren bitartez, IHPk hezkuntza-komunitatean duen garrantziari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi dira.

## Dinamizatzeko metodologia

Egitekoa gauzatzeko, **2A eta 2B tresnak** erabiliko dira.

**2A tresna** erabiltzeari dagokionez, aintzat hartu beharko dira ikastetxearen ezaugarriak (handia/txikia) eta bitarteko informatiko batzuk erabiltzeko beharrezkoak diren ezagutzak.

Bi aukera daude:

a. *Paperean egin daiteke, eskuz beteta (egokiagoa ikastetxe txikietan).*

b. *Sarean partekatutako dokumentu baten datuak biltzen dituen inprimaki baten bidez (IKTen gaineko oinarrizko ezagutzak edukiz gero, erraz egin daiteke).*

Bi kasuotan, emaitzak aztertu beharko dira ondorioak ateratzeko. Lehenean, datuak biltzeko tresna bat erabili beharko da (aurkeztutako bera, hutsik) eta, bigarrenean, aurretiaz pentsatu beharko da zer-nola nahi ditugun jaso emaitzok, aplikazioak zuzenean irakur ditzan (etapaka, mintegika, mailaka, taldeka, etab.).

Emaitzak lortuta, taldekako saioa egingo da (etapaka, mintegika, zikloka, era mistoan, etab.), emaitzak aztertzeko. Talde dinamizatzaileak **2B tresnan** jasoko ditu ondorio garrantzitsuenak, IHP osatzea edo eguneratzea zergatik eta zertarako den garrantzitsua ulertzeko.

## Lan-eskema

a. *Banakako galde-sorta.*

b. *Datu-bilketa.*

c. *Itzulketa eta taldekako gogoeta.*

d. *IHP osatzearen edo eguneratzearen garrantziari buruzko ondorioak.*



# Zergatik eta zertarako IHP

## Inkesta: zein dira IHPren alderdirik baliotsuenak

Adierazi zenbatean zauden ados atal bakoitzeko baieztapen hauekin:

1 = Gutxi / Ez nator bat.
2 = Besterik gabe / Ez alde, ez kontra.
3 = Handi samarra / Bat nator.
4 = Oso garrantzitsua / Erabat ados nago.

**1. Honako alderdi hauek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua zehazteko garrantzitsuak direla iruditzen zaizu?**

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Eskaintza akademikoa. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2 | Antolamendua. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3 | Funtzionatzeko arauak. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4 | Laneko filosofia. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5 | Giroa. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6 | Helburuak. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 7 | Irudia eta estiloa. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**2. Jakin badakigu IHP dokumentu soil bat baino gehiago dela, eta hori prestatzeko garaian alderdi asko hartu behar izaten direla kontuan. Horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian. Honako hauen arabera, zer balorazio egiten duzu IHPri buruz?**

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Osatzeko garaian eskola-komunitateak parte hartzea: irakasleak, ikasleak, familiak, irakasle ez diren langileak, etab. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2 | Prestatzeko prozesua positiboa eta interesgarria izatea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3 | Ikastetxearen kudeaketa hobetzeko baliagarria izatea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4 | Hezteko balio izatea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5 | Familiak euren seme-alaben hezkuntza-prozesuan gehiago inplikatzeko balio izatea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**3. IHPk zer edo zertarako balio behar du. Honako hauetarako balio izatea garrantzitsua iruditzen zaizu?**

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Epe luzerako helburuak bateratzeko eta zehazteko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2 | Urteko planen esparrua finkatzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3 | Ikastetxearen ezaugarriak ezartzeko: nor garen. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4 | Familiek seme-alabentzako aukeratutako ikastetxea eta hezkuntza zer-nolakoak diren jakiteko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5 | Gure ingurunearen beharretara egokitzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6 | Ikastetxeari egitura argi eta zehatza emateko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 7 | Ikasleek ikastetxearen helburu nagusiak ezagutzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 8 | Ikasleen eta familien ikastetxearekiko kidetasun-sentipena indartzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 9 | Erreferentziazko dokumentu argia edukitzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 10 | Hobekuntza-estrategiak errazteko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 11 | Ikastetxearen errealitatera eta ibilbidera egokitzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**4. IHP egiteko, hainbat elementu sakon aztertu behar dira, eta gai horiei buruz denetariko iritziak topatuko ditugu, are kontrajarriak ere. Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu IHP osatzeko dinamikaren oinarrian honako hauek egoteari?**

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Iritziak bateratzeko xedea izatea beti. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2 | Guztiek maila berean parte hartzea sustatzea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3 | Oinarrizko adostasunak ahalbidetzea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4 | Hezkuntza-komunitate osoko iritziak biltzea, gutxiengoenak barne. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**5. Adierazi zenbateraino zauden ados zure ikastetxeari buruzko ideia hauekin:**

| | | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Ikastetxeak bere jarduerari buruzko ikuspegi orokor samarra du, proiektu partzialak ere badaudela esan daiteke: sailekoak, ziklokoak, etapakoak, etab. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2 | Ikastetxeak proiektu orokor aski zehatza du, plangintzaren bidez praktikan jartzen eta aldian behin berrikusten dena. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3 | Proiektu orokor argi eta zehatza du eta, gainera, etengabe berritzen ahalegintzen da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

## Zergatik eta zertarako IHP

### Lortutako emaitzak ikusita, zein dira IHP eduki beharra adierazten duten alderdiak?

Adibidez:

- *Ikastetxe-nortasuna eta helburu nahiz xede komunak izatea, eta proiektuak orientatzea.*
- *Antolaketa, koordinazio eta funtzionamendu hobea izatea.*
- *Koherenteak izatea printzipioekin eta ildo metodologikoekin eta ICPren garapenarekin. Irizpideak, akordioak.*
- *Proiektu komun batean inplikatzea eta parte hartzea lortzea, ikastetxearen autonomian oinarrituta.*

| ONDORIOAK |
|---|
| |

# Zergatik eta zertarako IHP

## Helburua

Ikasle guztiek intereseko iriztea ikastetxeak bere Hezkuntza Proiektua zehazteari, eta dokumentua prestatzeko prozesuan inplikatzea.

Tresna horren bidez, IHPk hezkuntza-komunitatean duen garrantziari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi dira. Asmoa ez da ondorio handirik ateratzea, ezta hobetu beharreko arlorik hautematea ere, baizik eta ikasleek uler dezatela, IHP prestatzeko orduan, haien parte hartzeak ere duen garrantzia.

## Dinamizatzeko metodologia

Sentsibilizazio aldian, saio bat baliatuko dute tresna honetan proposatutakoa ikasleekin lantzeko.

**3A tresna** banaka erabili ahal izango da, jarduera hasteko. Bost minutu eta gero, talde txikitan eztabaidatzeari ekingo zaio (lauzpabost pertsonakoak), erantzunak partekatzeko, adosteko eta justifikatzeko.

Ondoren, guztiekin komunean jarriko dira.

Saioa amaitzeko, ikasleek IHPren osaeran parte hartzeak duen garrantzia azpimarratu beharko da, parte hartzera animatuz eta ikastetxean jarraituko den prozesua azalduz.


3a

IHP egiteko gida

| 3A tresna | *Ikasleria* |
|---|---|
| [sentsibilizazioa] | |

Zergatik eta zertarako IHP

Nire iritzia ere kontuan izatekoa da

Alderdi hauetako zeintzuetan da garrantzitsua eta kontuan hartzekoa zure iritzia?

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| 1 | Jangelako menua. | ☐ | ☐ |
| 2 | Ikastetxeko espazioen erabilera. | ☐ | ☐ |
| 3 | Ikasgaiak eta irakasgaiak. | ☐ | ☐ |
| 4 | Gatazken gaineko erabakiak. | ☐ | ☐ |
| 5 | Eskola-ordutegiak. | ☐ | ☐ |
| 6 | Jaien eta ospakizunen antolaketa. | ☐ | ☐ |
| 7 | Gure ebaluazioan parte-hartzea. | ☐ | ☐ |
| 8 | Eskola emateko modua. | ☐ | ☐ |
| 9 | Bizikidetza ona lortzeko arauak: errespetua, zarata, ordena, etab. | ☐ | ☐ |
| 10 | Ikasle/irakasle berrien aukeraketa. | ☐ | ☐ |
| 11 | Ikasgelan parte hartzeko moduan. | ☐ | ☐ |
| 12 | Ordezkaritza Organo Goreneko (OOG) kideen hautaketa. | ☐ | ☐ |

## Zergatik eta zertarako IHP

### Nire iritzia ere kontuan izatekoa da

Hauetako zein alderditan da garrantzitsua eta kontuan hartzekoa zure iritzia?

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| 1 | Jangelako menua. | ☐ | ☐ |
| 2 | Ikastetxeko espazioen erabilera. | ☐ | ☐ |
| 3 | Ikasgaiak eta irakasgaiak. | ☐ | ☐ |
| 4 | Gatazken gaineko erabakiak. | ☐ | ☐ |
| 5 | Eskola-ordutegiak. | ☐ | ☐ |
| 6 | Jaien eta ospakizunen antolaketa. | ☐ | ☐ |
| 7 | Gure ebaluazioan parte-hartzea. | ☐ | ☐ |
| 8 | Eskola emateko modua. | ☐ | ☐ |
| 9 | Bizikidetza ona lortzeko arauak: errespetua, zarata, ordena, etab. | ☐ | ☐ |
| 10 | Ikasle/irakasle berrien aukeraketa. | ☐ | ☐ |
| 11 | Ikasgelan parte hartzeko moduan. | ☐ | ☐ |
| 12 | Ordezkaritza Organo Goreneko (OOG) kideen hautaketa. | ☐ | ☐ |

## Zergatik eta zertarako IHP?

### Helburua

Ikasle guztiek IHP zer den ulertzea, ikastetxeak IHP zehaztearen interesa eta garrantzia onartzea, eta hura prestatzeko prozesuan parte hartzea.

Tresna horren bidez, IHPk hezkuntza-komunitatean duen garrantziari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi da. Asmoa ez da ondorio handiak ateratzea, edo hobetu beharreko arloak hautematea, baizik eta ikasleek ulertzea IHP prestatzeko orduan haiek ere parte hartzeak duen garrantzia.

### Dinamizatzeko metodologia

Irakasleek, sentsibilizazio-aldian, saio bat baliatuko dute tresna honetan proposatutakoa lantzeko.

Ikasleen interesa eta motibazioa pizten dituen fikziozko egoera bat proposatzea da ideia, eta horretatik abiatuta, IHP zer den eta zer garrantzi duen azaltzea. Aldi berean, aurki ikastetxean hori landuko dela iragarriko da, eta haiek ere parte hartu behar dutela, emaitzan haien proposamenak eta nahiak ere jaso daitezen.

**Fikziozko egoera** hau aurkeztuko zaie:

> Hezkuntza-administrazioak hilabeteko epea (edo beste bat) eman dio ikastetxeari idazki edo dokumentu bat igortzeko, eta hor gure ikastetxearen hezkuntza-ezaugarriak zein diren adieraziko da; hau da, gure ikastetxean modu berezi edo adierazgarrian zer balio laguntzen, bultzatzen, sustatzen edo lantzen diren. Ez badugu ezer bidaltzen, eredu gisa emandako bi adibideetako bat esleituko digu administrazioak.
>
> Hots, gure institutua edo ikastetxea ezagutzen ez duen lagun bati hezkuntzari dagokionez garrantzia zeri ematen zaion azaldu behar izanez gero, zer esango zenioke? (Litekeena da, gurea ez ezik beste ikastetxe batzuen ezaugarria izatea). Adibidez:
>
> - Gure institutuak Agenda 21 proiektuan parte hartzen du, garrantzi handia ematen diolako honako gai hauekin zerikusia duen guztiari: natura, kontsumoa, birziklatzea, berrerabiltzea, aurreztea, gauzak modu arduratsuan erabiltzea, jasangarritasuna, gure ohituren eragina, etab. Horrenbestez, bai maila pertsonalean, bai taldean, *natura errespetatzeko eta zaintzeko* konpromisoa sustatzen duela esan dezaket.
> - Gure ikastetxean, ikasle batzuek erabaki batzuetan parte hartu eta iritzia eman dezakegu: Eskola-kontseiluan ikastetxeko jardueren alderdirik garrantzitsuenak eztabaidatzen eta adosten dira (arazoak, aldaketak, planak eta proiektuak, etab.); egutegia, ikastetxeko arauak eta gastuak onartzen dira, etab. Era berean, ordezkarien batzordea dugu, gure arazoez hitz egiteko, proposamenak eztabaidatzeko, aldaketak eskatzeko, etab. Horregatik guztiagatik, *parte-hartzea eta kritiko izaten erakustea* da ezaugarri nagusia.
> - Gure ikastetxean, aniztasun handia dago: beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak, etxean euskaraz egiten dutenak eta egiten ez dutenak, aurrera egiteko zailtasunak dituztenak eta aurrera erraz egiten dutenak, etab. Desberdinak gara, baina elkarrekin gaude eta elkarri laguntzen diogu. Eskola inklusiboa nahi dugu.

- Erlijioari dagokionez, ikasleak desberdinak gara: batzuk sinestunak dira (erlijio desberdinekoak), beste batzuk ez. Ikastetxean norberaren hautua errespetatzen dugu, eta aukera bakoitzari buruz gehiago jakiten saiatzen gara, bizikidetza onaren mesedetan. Gure ikastetxea *anitza da erlijio zaletasunari dagokionez*.

Hezkuntza-administrazioak eskaintzen dizkigun ereduak proposamenak besterik ez dira. Hau da, egoki iritzitako aldaketak egin diezazkiokegu, gaiaren gaineko interesa eta motibazioa pizteko. Hasieran aurkako jarrera nagusituko den arren, amaieran, dinamika eta haren zergatia azaltzean, IHP osatzeko zereginarekiko eta duen garrantziarekiko jarrera proaktiboa izateko lan egingo dugu. Ereduak honako hauek dira:

**1. EREDUA**

Gure ikastetxea honelakoa da:

↘ **Euskalduna**, herria den moduan. Euskal ohiturak eta euskal kultura ere bultzatzen dira.

↘ **Inklusiboa**: heziketa ikasleen ezaugarrietan oinarritzen duen ikastetxe bat gara, eta helburua da haiek gaitasun guztiak garatu ahal izatea, ezaugarri horiei egokitutako irakaskuntza/ikaskuntza prozesu baten bidez. Ikasleen beharrei egoki kasu egiten saiatzen gara:

↘ **Hezkidetzakoa**: hezkidetza naturaltasunez bizi dugu; sexuagatiko bereizkeria saihesten ahalegintzen gara, eta norberaren eta gainerakoen sexualitatea onartzen dugu. Hizkuntza ez-sexista erabiltzen duen hezkuntza lehenesten dugu.

↘ **Parte-hartzailea**: ekarpen eta iritzi guztiak bere egiten dituen ikastetxe plural bat nahi dugu. Gure ikasleak pertsona kritiko, arduratsu eta laguntzaile gisa hezten saiatzen gara.

↘ **Berritzailea**: irakasleen prestakuntza etengabeko prozesu bat dela ulertzen dugu. Irakasleek metodologia teknika berrietara eta inguruan dugun gizarte-errealitatera egokitu behar dute, eta eguneroko lanaren gaineko gogoeta egin, kalitateko irakaskuntza lortzeko.

↘ **Eleanitza**: hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditugu, gero eta dinamikoagoa den gizartean bizi ahal izateko.

↘ **Askotarikoa**: ideologikoki, gure ikastetxea askotarikoa da.

**2. EREDUA**

Gure ikastetxeak:

↘ Prestakuntza integrala sustatzen du; integraltzat ulertuta ikaslearen alderdi guztien (arlo afektiboa, fisikoa, intelektuala, soziala eta etikoa) bilakaera harmonikoa, horiek guztiek eratzen baitute haren garapen pertsonala.

↘ Gizarte demokratiko baten berezko balioak garatzen ditu ikasleengan; haien eskubideak zaintzen ditu, eta dituzten betebeharrak betetzen dituztela begiratzen.

↘ Hezkuntza-jarduera honelako balioetan oinarritzen du: elkartasuna eta tolerantzia, begirunea, erantzukizuna, eta edozer bereizkeria mota positiboki gainditzea.

↘ Lehentasunezko arreta eta ahalegina eskaintzen dizkio gure ikasleengan autonomia pertsonala sustatzera bideratutako gaitasunak garatzeari.

↘ Hezteko zereginean, familiekiko elkarlan estua ezinbestekoa dela uste dugu, eta jakitun gara haiek direla gure ikasleen lehen hezitzaileak eta hezitzaile nagusiak.

↘ Gizarteratzea errazten du, bilakaera pertsonal eta eskolarrean zailtasun handienak izan ditzaketen ikasleen arretara behar diren ahaleginak bideratuta. Hezkuntza inklusiboaren alde egiten du.

Ikasleei proposatuko zaie hitz egiteko eta beren iritziz gure ikastetxeak dituen hiru ezaugarri garbienak zehazteko. Horretarako, 6-7 ikasleko taldeak egin ditzakegu, eta denbora-tarte bat eman. Beharrezkotzat joz gero, taldeetan elkarrizketa sustatzeko eta bideratzeko, hezkuntza-administrazioak proposatutako ereduak emango dizkiegu; dena den, hobe da, ahal bada, beren ideietan, analisian... oinarrituta lan egitea.

Amaitzeko, talde bakoitzak bere proposamena aurkeztuko die gainerakoei, eta irakaslearen azalpenarekin bukatuko da saioa: *«Simulazio bat izan da. Ikastetxeak egin beharreko zeregina da; beharrezkoa da ikasleek parte hartzea; IHPk, gainera, beste atal batzuk ditu…»*

Ondoren, IHP prestatzeko orduan ikasleek parte hartzea garrantzitsua dela nabarmenduko dute irakasleek; parte hartzera animatuko dituzte, eta hartarako jarraitu beharreko prozesua azalduko diete.



# Zergatik eta zertarako IHP?

## Nolakoa da gure ikastetxea

Gure institutua edo ikastetxea ezagutzen ez duen lagun bati hezkuntzari dagokionez garrantzia zeri ematen diozuen azaldu behar izanez gero, zer esango zeniokete? Hartu kontuan agian ez dela gure ikastetxearen ezaugarria bakarrik, beste batzuek ere izan dezaketela.

Hiru ezaugarri nabarmendu behar dituzue, zuentzat zer balio duten azalduta:

| LEHENENGOA |
|---|
| |

| BIGARRENA |
|---|
| |

| HIRUGARRENA |
|---|
| |

Eredu hauek proposatu dizkigu hezkuntza-administrazioak. Baloratu agertzen diren ezaugarri batzuk gure ikastetxearentzat egokiak izan litezkeen.

**1. EREDUA**

Gure ikastetxea honelakoa da:

↘ **Euskalduna**, herria den moduan. Euskal ohiturak eta euskal kultura ere bultzatzen dira.

↘ **Inklusiboa**: heziketa ikasleen ezaugarrietan oinarritzen duen ikastetxe bat gara, eta helburua da haiek gaitasun guztiak garatu ahal izatea, ezaugarri horiei egokitutako irakaskuntza/ikaskuntza prozesu baten bidez. Ikasleen beharrei egoki kasu egiten saiatzen gara:

↘ **Hezkidetzakoa**: hezkidetza naturaltasunez bizi dugu; sexuagatiko bereizkeria saihesten ahalegintzen gara, eta norberaren eta gainerakoen sexualitatea onartzen dugu. Hizkuntza ez-sexista erabiltzen duen hezkuntza lehenesten dugu.

↘ **Parte-hartzailea**: ekarpen eta iritzi guztiak bere egiten dituen ikastetxe plural bat nahi dugu. Gure ikasleak pertsona kritiko, arduratsu eta laguntzaile gisa hezten saiatzen gara.

↘ **Berritzailea**: irakasleen prestakuntza etengabeko prozesu bat dela ulertzen dugu. Irakasleek metodologia teknika berrietara eta inguruan dugun gizarte-errealitatera egokitu behar dute, eta eguneroko lanaren gaineko gogoeta egin, kalitateko irakaskuntza lortzeko.

↘ **Eleanitza**: hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditugu gero eta dinamikoagoa den gizartean bizi ahal izateko.

↘ **Askotarikoa**: ideologikoki gure ikastetxea askotarikoa da.

**2. EREDUA**

Gure ikastetxeak:

↘ Prestakuntza integrala sustatzen du; integraltzat ulertuta ikaslearen alderdi guztien (arlo afektiboa, fisikoa, intelektuala, soziala eta etikoa) bilakaera harmonikoa, horiek guztiek eratzen baitute haren garapen pertsonala.

↘ Gizarte demokratiko baten berezko balioak garatzen ditu ikasleengan; haien eskubideak zaintzen ditu, eta dituzten betebeharrak betetzen dituztela begiratzen.

↘ Hezkuntza-jarduera honelako balioetan oinarritzen du: elkartasuna eta tolerantzia, begirunea, erantzukizuna, eta edozer bereizkeria mota positiboki gainditzea.

↘ Lehentasunezko arreta eta ahalegina eskaintzen dizkio gure ikasleengan autonomia pertsonala sustatzera bideratutako gaitasunak garatzeari.

↘ Hezteko zereginean, familiekiko elkarlan estua ezinbestekoa dela uste dugu, eta jakitun gara haiek direla gure ikasleen lehen hezitzaileak eta hezitzaile nagusiak.

↘ Gizarteratzea errazten du, bilakaera pertsonal eta eskolarrean zailtasun handienak izan ditzaketen ikasleen arretara behar diren ahaleginak bideratuta. Hezkuntza inklusiboaren alde egiten du.

# Non gaude: ikastetxearen testuinguruaren deskribapena eta azterketa

## Helburua

Ikastetxearen errealitatearen gainean ikuspegi orokor bat eratzeko baliagarriak izango ditugun eskola-bizitzako hainbat alderditako ondorioez gogoeta egitea eta horiek biltzea.

## Dinamizatzeko metodologia

Tresna honetan, *post-it bidezko brainstorming*aren teknika eta **5A tresna** erabiltzea proposatzen dugu.

**1.** Gutxi gorabehera 10 laguneko taldeak sortzea proposatzen da. Talde bakoitzari **5A tresnan** ageri diren lan-esparruetako bat esleituko zaio.

Hona hemen esparru bakoitzeko eztabaida bideratzeko balio dezaketen alderdi batzuk. Ez dira guztiak landu behar, azpimarragarrienak nabarmendu baizik. Analisia datuetan eta frogetan oinarrituta egin beharko da, ez irudipen soiletan oinarrituta.

**1. esparrua. Ikastetxearen testuingurua**:

- Maila sozioekonomikoa eta kulturala.
- Familia-giroa.
- Geografikoa.
- Historia, ibilbidea, etab.
- Beste erakunde batzuekiko harremana.
- Instalazioak.
- Hizkuntza-egoera.
- …

**2. esparrua. Hezkuntza-beharrak, ikasleen ikaskuntzako emaitzen arabera:**

- Arloko eta gaikako eskola-emaitzak, ikasturteka, zikloka, etab.
- Kanpo-ebaluazioen emaitzak (diagnostikoaren ebaluazioa, PISA, etab.).
- Maila-igoerak eta errepikatzeak.
- Titulazioak.
- Eskola-uzteak.
- Programazio didaktikoak eta ikasgelako praktikak.
- Ebaluazioaren izaera eta tratamendua.
- Bizikidetza-datuak, berdintasunekoak, etab.
- Erantzuna aniztasunari.
- Familien eta bestelako eragileen iritzia biltzea.
- Ikasleen ibilbidearen jarraipena.
- …

**3. esparrua. Ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-jarduera orokorra:**

- Taldekatzeko irizpideak eta tutoretza-banaketa.
- Ikasgelako praktikak.
- Metodologia.
- Antolaketa.
- Koordinazioa.

- Komunitateko hainbat eragilek parte hartzeko eremuak: ikasleak, familiak, etab.
- Giroa eta bizikidetza.

**2.** Koordinatzaileak/moderatzaileak lan-esparrua eta egin beharreko lana aurkeztu eta zehaztuko ditu. Horretarako egokien deritzen datuak, baliabideak eta materialak erabiliko ditu.

**3.** Taldekide bakoitzak *post-it* sorta bat jasoko du. Ideia bana pentsatuko du bakoitzak:

- *Post-it* batean idatziko du, erraz irakurtzeko moduan (ideia bana *post-it* bakoitzeko).
- Boz gora esango du.
- *Post-it* hori arbel batean edo edonork ikusteko moduko lekuan ipiniko da.

**4.** Taldekideek, besteen ideiak ikusita, ideia berriak proposatuko dituzte, lanean ari diren esparruko ataletan sailkatuz.

**5.** Bildutako ideia/gogoeta/ekarpen guztietatik, ondorio gisa, taldeak garrantzitsuenak iruditzen zaizkionak hautatuko ditu.

**6.** Azkenik, taldeek atera dituzten ondorioak azalduko dizkiete gainerako parte-hartzaileei, den-denek ekarpenak egin ditzaten hizpide den esparruan.

**7.** Azken ekarpenak jasota, **5A tresnan** proposatutako testua idatziko da.


IHP prestatzeko gidaliburua

| **5A tresna** | *Hezkuntza-* |
|---|---|
| [testuing. azterketa] | *komunitatea* |

5a

Non gaude: ikastetxearen testuinguruaren deskribapena eta azterketa

1. ESPARRUA. IKASTETXEAREN TESTUINGURUA

2. ESPARRUA. HEZKUNTZA PREMIAK, IKASLEEN IKASKUNTZAN IZANDAKO EMAITZA AKADEMIKOEN ARABERA

3. ESPARRUA. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PRAKTIKA ETA ANTOLAKETA PRAKTIKA OROKORRAK

BESTELAKOAK

5a

## Non gaude: ikastetxearen testuinguruaren deskribapena eta azterketa

| 1. ESPARRUA. IKASTETXEAREN TESTUINGURUA |
| --- |
| |

| 2. ESPARRUA. HEZKUNTZA PREMIAK, IKASLEEN IKASKUNTZAN IZANDAKO EMAITZA AKADEMIKOEN ARABERA |
| --- |
| |

| 3. ESPARRUA. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PRAKTIKA ETA ANTOLAKETA PRAKTIKA OROKORRAK |
| --- |
| |

| BESTELAKOAK |
| --- |
| |

# Nor gara: printzipioak, balioak eta ezaugarriak

## Helburua

Ikastetxearen ezaugarriak, printzipioak eta balioak azaltzea.

## Dinamizatzeko metodologia

Egitekoa gauzatzeko, **6A eta 6B tresnak** erabiliko dira.

Tresna horiek hainbat jarduera proposatzen dituztenez, lan-saio bat baino gehiago eskaintzeko aukera aztertu beharko da. Ikastetxeak bere ezaugarrietara moldatu beharko du (inplikatutako pertsona-kopurua, egutegia, espazioak zehaztea, etab.).

### 1. JARDUERA [6A tresna]

*Zeintzuk dira ikastetxeak bultzatu beharreko printzipioak, balioak eta ezaugarriak?*

Bakarka, parte-hartzaile guztiek atal honetako alderdiei buruzko gogoeta egin beharko du (gutxienez hiru, gehienez bost). Ondoren, bikoteka arituko dira, eta lauko taldeetan gero. Horrela, gero eta talde handiagoak osatuko ditugu (8, 12 edo 16 pertsonakoak), pertsona-kopuruaren arabera. Talde bakoitzean bozeramailea edo idazkaria izendatuko da. Taldeek ateratako ondorioak azalduko dituzte eta ekarpen guztiak bilduko dira, hurrengo jarduerari ekiteko.

### 2. JARDUERA [6A tresna]

*Aurreko atalean aipatutako printzipioetatik, balioetatik eta ezaugarrietatik zeintzuk dira gure ikastetxearenak? Zeintzuk dira gainerakoengandik bereizten gaituztenak?*

Aurrekoan bezala, bakarka ekingo diote parte-hartzaileek, eta lortutako zerrendatik hiru hautatuko dituzte, ikastetxearen bereizgarri direnak kontuan hartuta. Ondoren, bikoteka egingo dute gogoeta, lauko taldeetan gero, etab. (aurreko jardueran bezala). Atera dituen ondorioak azalduko ditu talde bakoitzak, eta, era adostuan, adierazitako ideia garrantzitsuenak bilduko dira, gure ikastetxearentzat esanguratsuenak direnak lehenetsita.

### 3. JARDUERA [6A tresna]

*Aurreko atalean jasotako printzipioez, balioez eta ezaugarriez ari garela, zertaz ari gara?*

Ikastetxearen printzipioak, balioak eta ezaugarriak bildu ondoren, talde txikietan (bospasei lagunekoak) horiek esan nahi dutenaz egingo da gogoeta. Idazkariak edo bozeramaileak ekarpen guztiak bilduko ditu. Iritzi guztiak denen artean eztabaidatuko dira, definizio adostua lortu, talde koordinatzaileak azken testua idatz dezan (funtsezko atala denez, komeni da printzipioen, balioen eta ezaugarrien gaineko eztabaidan ahalik eta parte-hartze zabalena lortzea, testu horretan bildutakoa ikastetxea bereizten duena izango delako guztientzat).

**4. JARDUERA [6B tresna]**

*Talde handian*

Talde guztien ekarpenak biltzea eta azken testua idaztea.



## Nor gara: printzipioak, balioak eta ezaugarriak

### 1. jarduera

Banakako lana

Adierazi ikastetxe batek bere hezkuntza-eskaintzan garatu/eduki/bermatu behar dituen printzipioak, balioak eta ezaugarriak:

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Plurala. Inklusiboa. Giza duintasunaren balioa, funtsezko erreferente etiko gisa. | ☐ |
| 2 | Euskalduna. Eleanitza. Hizkuntzen tratamendu integratua. | ☐ |
| 3 | Hezkidea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eremu egiazkoa. | ☐ |
| 4 | Bizikidetza. Giza eskubideak eta bizikidetza demokratikoaren printzipioak dira erreferentzia. | ☐ |
| 5 | Ingurunean errotua. Gizartearen zerbitzura. | ☐ |
| 6 | Ekitatiboa. Kalitatekoa. Aukera-berdintasuna bermatzailea. Ahalmenak eta gaitasunak ahal beste garatzen duena. | ☐ |
| 7 | Kultura-artekotasuna. Beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikide izateko estrategien ahalbidetzailea. | ☐ |
| 8 | Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea: hezkuntza emozionala. | ☐ |
| 9 | Gizabidea. Herritar kritiko eta arduratsuak sortzea. | ☐ |
| 10 | Ikasleak errespetatzea, hazten ari diren pertsona askeak direnez gero. | ☐ |
| 11 | Parte-hartzailea. Familien, ikasleen eta ikastetxeko antolaketako eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetza sustatzen duena. | ☐ |
| 12 | Ez-doktrinatzailea, ez-konfesionala, zientifikoa. | ☐ |
| 13 | Curriculum- eta antolaketa-autonomia duena. | ☐ |
| 14 | Herritar izateko eta gizarteratze aktiborako prestatzen duena. | ☐ |
| 15 | Ikaslea bere hezkuntzaren protagonista izatea,. berdinen arteko lankidetzan oinarritua. | ☐ |
| 16 | Sormena eta ekiteko gaitasuna bultzatzen duena. | ☐ |
| 17 | Ekologikoa. Natura errespetatzea eta zaintzea. Eredu jasangarria xede duena. | ☐ |
| 18 | Berritzailea: etengabeko hobekuntzara bideratua. | ☐ |
| 19 | Berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena. | ☐ |
| 20 | Bizitza osoko ikaskuntza dinamizatzen duena. | ☐ |
| 21 | Bakearekiko, lankidetzarako eta elkartasunerako konpromiso eragilea. | ☐ |
| 22 | Tolerantea. Gainerakoen askatasuna, pentsamoldea, jokabidea edota iritziak errespetatzean dituena | ☐ |
| 23 | Gatazkak aurreikusten dituena eta era baketsuan konpontzen dituena. | ☐ |
| 24 | Erantzulea. Nork bere ekintzen ondorioei buruzko ardura hartzeko gaitasuna duena. | ☐ |
| 25 | Elkartasuna eta boluntariotzaren sustatzailea. | ☐ |
| 26 | Jakin-mina eta zehaztasun zientifikoaren bultzatzailea. | ☐ |
| 27 | Pertsonen arteko konpromisoa, adiskidetasuna eta elkartasun-sustatzailea. | ☐ |
| 28 | Osasuna, ohitura osasungarri eta aisialdi aktiboaren defendatzailea. | ☐ |
| 29 | Ekimena eta ahalegin pertsonalaren eta taldekoaren indartzailea. | ☐ |
| 30 | Irakasleen gaitasun profesionalaren aldeko apustua . | ☐ |

## 2. jarduera

Banakako lana

Zure iritzian, zeintzuk dira gure ikastetxeari dagozkionak? Markatu itzazu, eta azaldu labur-labur.

| | **printzipioak, balioak eta ezaugarriak** | **definizioa** |
|---|---|---|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |

## 3. jarduera

Lana talde txikietan

Zure iritzian, zeintzuk dira gure ikastetxeari dagozkionak? Markatu itzazu, eta azaldu labur-labur.

| | **printzipioak, balioak eta ezaugarriak** | **definizioa** |
|---|---|---|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |
| 4 | | |
| 5 | | |
| 6 | | |
| 7 | | |
| … | | |

## Nor gara: printzipioak, balioak eta ezaugarriak

### 4. jarduera

Talde handian, talde guztien ekarpenak biltzea eta azken testua idaztea.

| | Printzipioak, balioak ezaugarriak | definizioa |
|---|---|---|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |
| 4 | | |
| 5 | | |
| 6 | | |
| 7 | | |
| 8 | | |
| 9 | | |
| … | | |

## Zer lortu nahi dugu: ikastetxearen hezkuntza-helburuak

### Helburua

Ikastetxearen oinarrizko helburuak proposatzea, ikastetxeak bere gain hartutako eta printzipioetan, balioetan eta ezaugarrietan adierazitako funtzioaren arabera. Helburu horiek hobekuntza bideratzeko jarraibide gisa hartu behar dira, bai hezkuntza-jardueran (curriculum-esparrua), bai antolaketan nahiz funtzionamenduan.

### Dinamizatzeko metodologia

Egitekoa gauzatzeko, **7A eta 7B tresnak** erabiliko dira.

Tresna horiek hainbat jarduera proposatzen dituztenez, lan-saio bat baino gehiago eskaintzeko aukera aztertu beharko da. Ikastetxeak bere ezaugarrietara moldatu beharko du (inplikatutako pertsona-kopurua, egutegia, espazioak zehaztea, etab.).

Dinamizatzeko, komeni da taldekideak ez izatea aurreko jardueretan elkartutako berak.


7a
Zer lortu nahi dugu: ikastetxearen hezkuntza-helburuak
1. HELBURUA
2. HELBURUA
3. HELBURUA

**1. JARDUERA [7A tresna]**

- Egiteko horretarako, ordubeteko lan-saioa beharko da. Dinamizatzaileak ingurunearen aurkezpen labur bat egingo du, ahal bada, idatziz, aurreko ataletan bildutako printzipioak, balioak eta ezaugarriak adierazteko.
- Bakarka, parte-hartzaileek gogoetari ekingo diote eta beren iritzian garrantzitsuenak diren hiru helburuak proposatuko dituzte. (7A tresna). Ondoren, bikoteka arituko dira, eta lauko taldetan gero. Horrela, gero eta talde handiagoak osatuko ditugu (8, 12 edo 16 pertsonakoak), pertsona-kopuruaren arabera. Talde bakoitzean, bozeramailea edo idazkaria izendatuko da. Atera dituen ondorioak azalduko ditu talde bakoitzak, eta, era adostuan, adierazitako helburuen zerrenda osatuko da.
- IHP osatzeko prozesuko dinamizazio-batzordeak ekarpen guztiak bilduko ditu, zerrenda bakarra osatzeko.


7b
Zer lortu nahi dugu: ikastetxearen hezkuntza-helburuak

**2. JARDUERA [7B tresna]**

- Ariketa hau gauzatzeko, aurreko ariketako helburuen zerrenda zenbakitua erabiliko dugu. Osagarri gisa, hala behar izanez gero, gida honetan proposatuetako batzuk erabili ahalko dira tresnaren amaieran.
- Parte-hartzaileak, bakarka, helburu esanguratsuenenetatik bospasei hautatutako ditu, garrantziari edota premiari erreparatuta.
- Talde bakoitzak era honetan partekatuko ditu hautatutakoak: arbel batean, horman paratutako paper handi batean, etab., helburuari dagozkion zenbakiak idatziko dira. Parte-hartzaile bakoitzak itsasgarriekin edo errotulagailuarekin markatuko ditu aurrez hautatu dituenak. Hala, amaieran, gehiengoen babesa dutenak nabarmenduko dira besteen aldean.

- Jarraian, talde txikietan, helburu bakoitza zehatz eta argi adieraziko du idatziz, gure ikastetxera egokituta eta lehen adierazitako printzipioei, balioei eta ezaugarriei egokitzen zaiola bermatuta.
- IHP osatzeko prozesuaren dinamizazio-batzordeak idatzitakoa berrikusiko du.

1. Guztientzako lan-giro atsegina lortzea.
2. Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean euskararen erabilera sustatzea.
3. Eskola-esparruko talde guztien komunikazio-hizkuntza euskara izango da (jangelan, kiroletan, eskolaz kanpoko jardueretan, etab.).
4. Gure ikasleen nortasuna garatzea sustatzea, ikasteko, arrazoitzeko eta bere kasa erabakiak hartzeko laguntza eskainiz.
5. Irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.
6. Hezkuntza-komunitateko sektore guztien arteko komunikazioa eta lankidetza bermatzea.
7. Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan heztea, sexuaren, arrazaren edo erlijioaren araberako bazterketa-jokabideak ekiditeko.
8. Eskola-bizitzako alderdi guztietan kudeaketa demokratikoa sustatzea.
9. Tolerantziazko eta errespetuzko giroa sortzea Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarrizketaren eta parte-hartze arduratsuaren bidez konponduta.
10. Talde-lana eta ideia-trukea sustatzea.
11. Ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan heztea, gizabidezko ohiturak garatuta.
12. Ikasleen gaitasunak garatzeko eta globaltasuna nahiz diziplina-artekotasuna errespetatzeko metodologiak sustatzea.
13. Desadostasunak hitzaren bidez konpontzeko gai diren pertsonak heztea; hau da, gogoeta eta arrazoibidea erabiliko dutenak, ez indarkeria.
14. Ikasleei, familiei eta irakasleei mintzatzeko eta parte hartzeko bideak eskaintzea, guztiek ikastetxearen antolaketan eta garapenean dagokien gaitasun-esparrutik laguntzea sustatuta.
15. Ikasleei laguntzea beren eguneroko zereginei autonomiaz ekiten, beren ahalmenez jabetu daitezen eta autonomia pertsonala gara dezaten bultzatuz.
16. Gure ikasleak jabetu daitezela dituzten mugez eta ahalmenez, konfiantza, segurtasuna, baikortasuna eta adeitasuna adierazita.
17. Ikasleen garapen emozionala bultzatzea, hazteko eta pertsona-arteko harreman positiboak eraikitzeko trebetasunak landuta.
18. Ikasleek irakaskuntzaren gainean aurreikuspen onak eta motibazioa izatea, ahalik eta lorpen handienak eskuratzen ahalegindu daitezen.
19. Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita
20. Ikasleek natura maitatzea, errespetatzea eta gozatzea lortzea.
21. Erabaki pertsonalak modu arduratsu eta askean hartzeko gaitzea, beren zentzumen kritikoa garatuz eta erabilaraziz eta autoestimua areagotuz.
22. Ikasleek besteak diren bezala onartzea lortzea, besteen jatorri sozialaz, generoaz ta pentsaeraz aurreiritzirik gabe
23. Ikasleek beren lorpenak eta porrotak onartzea, beren gaitasunak eta akatsak aitortuta.
24. Ikasleek erantzukizun sozialaren zentzua garatzea, inguruan gertatzen denaz jabetu daitezen.
25. Ikasleek arteez gozatzea lortzea (musika, antzerkia, literatura, zinema, ondare artistikoa, etab.), beren sormena garatuz.
26. Ikasleen gaitasun zientifikoa garatzea.
27. Hezkuntza-zereginetan familiarekin lankidetza sustatzea.
28. Irakasleen artean koordinazio eraginkorra lortzea, eskola-emaitzak hobetzea eta hobekuntza jarraitua helburu hartuta
29. Inplikazioaren eta parte-hartzearen kultura lortzea, erantzukizunak banatzearen mesedetan.
30. Ikasleengan askotariko gizartean elkarbizitzeko eta gizarteko kultura-aniztasunak dakarren aberastasuna estimatzeko gaitasuna piztea.
31. Ikastetxeko ikasle guztiek beren gaitasunak ahal beste garatzea.
32. Ikasle guztien egiazko inklusioa xede duten hezkuntza-proposamenak lehenestea.
33. Ikasleen jarraipen pertsonalizatua egitea.
34. Irakasleen etengabeko formakuntza bultzatzea, kalitateko hezkuntzaren adierazle den aldetik
35. Gure ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen, toki-erakunde eta elkarte sozialen, kulturalen, lan-arlokoen, etab., arteko lankidetza sustatzea, gure hezkuntza-jarduera aberasteko.
36. Ikasle guztiengan ikasteko nahia sustatzea, eta gero eta modu autonomoagoan ikasteko gaitzea.
37. Ikastetxeko giza baliabide eta baliabide material guztiak era egoki eta eraginkorrean kudeatzea.
38. Eskuratutako gaitasunak egunerokotasunean erabiltzen erakustea.
39. Hezkuntza-komunitateko kide guztiak gure ikastetxean ezarri nahi dugun proiektu itxaropentsu, parte-hartzaile eta demokratiko honetan integratzea.

## Zer lortu nahi dugu: ikastetxearen hezkuntza-helburuak

### 1. jarduera

Banakako lana.

Adierazi zure ustez garrantzitsuenak diren hiru helburuak (ikastetxeko balioak, printzipioak eta ezaugarriak garatzeko baliagarriak direnak).

| 1. HELBURUA |
|---|
| |

| 2. HELBURUA |
|---|
| |

| 3. HELBURUA |
|---|
| |

## Zer lortu nahi dugu: ikastetxearen hezkuntza-helburuak

### 2. jarduera

Banakako lana

Adierazi daukaten garrantziagatik edo premiagatik zure ustez esanguratsuenak diren bospasei helburuak.

[*7A tresnako helburuak erabili*]

| | | |
|---|---|---|
| 1 | | ☐ |
| 2 | | ☐ |
| 3 | | ☐ |
| 4 | | ☐ |
| 5 | | ☐ |
| 6 | | ☐ |
| 7 | | ☐ |
| 8 | | ☐ |
| 9 | | ☐ |
| 10 | | ☐ |
| 11 | | ☐ |
| 12 | | ☐ |
| 13 | | ☐ |
| 14 | | ☐ |
| 15 | | ☐ |
| 16 | | ☐ |
| 17 | | ☐ |
| 18 | | ☐ |
| 19 | | ☐ |
| 20 | | ☐ |
| 21 | | ☐ |
| 22 | | ☐ |
| 23 | | ☐ |
| 24 | | ☐ |
| 25 | | ☐ |
| 26 | | ☐ |
| 27 | | ☐ |
| 28 | | ☐ |

## Nola berrikusiko dugu: IHPren iraunaldia

**Ikasturtea:**

### IHPren indarraldiari eusteko egindako ekintzak

**1**

**2**

**3**

### Berrikusitako eta eguneratutako alderdiak

**deskribapena**

**Egindako aldaketak**

**justifikazioa**

**deskribapena**

**Egindako aldaketak**

**justifikazioa**

## Historikoa

| | **IHPren indarraldiari eusteko eta atxikimendua sendotzeko egindako ekintzak** | **berrikusitako IHPren alderdiak eta eguneratutakoak** |
|---|---|---|
| *2014-2015* | | |
| *2015-2016* | | |
| *2016-2017* | | |
| *2017-2018* | | |
| *2018-2019* | | |

# Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua idazteko txantiloiak

# Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

# Proyecto Educativo de Centro

[ikastetxearen izena ]

# Aurkibidea


**1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa** **XX**

**2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak** **XX**

**3. Helburuak eta lehentasunak** **XX**

3.1. Helburuak XX

3.2. Lehentasunak XX

**4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak** **XX**

**4.1. Curriculumaren esparrua**

*4.1.1. Metodologia-aukerak* XX

*4.1.2. Ebaluazioa* XX

*4.1.3. Hezkuntza-eskaintza* XX

*4.1.4. Aniztasunari erantzutea* XX

*4.1.5. Orientabidea eta tutoretza* XX

*4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua* XX

*4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza* XX

**4.2. Antolamenduaren esparrua**

*4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa* XX

*4.2.2. Parte hartzeko eredua* XX

*4.2.3. Bizikidetza* XX

**5. Iraunaldia** **XX**

# 1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa



**Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.**

**Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.**

**Ikastetxearen hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.**

## 2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak

## 3.1. Helburuak

1 helburuaren formulazioa

▸

*identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarriri erantzuten dien*

2 helburuaren formulazioa

▸

*identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarriri erantzuten dien*

3 helburuaren formulazioa

▸

*identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarriri erantzuten dien*

## 3.2. Lehentasunak

## 4.1. Curriculumaren esparrua

### Metodologia-aukerak

### Ebaluazioa

### Hezkuntza-eskaintza

### Aniztasunari erantzuna

### Orientabidea eta tutoretza

### Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

### Prestakuntza eta berrikuntza

## 4.2. Antolamenduaren esparrua

### Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa

### Parte hartzeko eredua

### Bizikidetza

## 5. Iraunaldia